



ARGIA

ZONIFIKAZIOARI AURRE **Nafarroa hegoaldetik euskararen alde**

26-31. orrialdeak

#2.798 | 2022/10/30 | 4,00 €



***"Kolonbian emakumeak
demokraziatik
kanporatu zituzten"***

16 | ALEJANDRA MILLER



***Komunitatean
aztarna energetikoa
txikiagoa da***

32 | ERREKALEOR



LARRUN #278
Anna Gabriel, CUP

LURRA HERRIARI DEIKA



Euskal Herriko agroekologia mugimendua eta ARGIAren elkarlana.
Diseinu berriak azokan salgai. %100 kotoi organikoz egindako kamisetak.

Prezioa **19,50 €**

Bidalketa gastuak **5€**. Bidalketa doan
40€-tik gorako erosketetan. Erosketak
BIZUM bidez ordaindu daitezke.

azoka.argia.eus

(+34) 943 37 15 45

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | HUMANITATEAREN UNE GORENAK
- 07 | EZ HANKA EZ BURU



AZALEKO ILUSTRAZIOA: PAULA ESTÉVEZ

Iritziak

- 21 | KARMELO LANDA
- 22 | KATIXA DOLHARE
- 23 | INMA ERREA
- 23 | ITXARO BORDA
- 24 | IÑAKI BARCENA

Finkoak

- 40 | ARGIA KOMUNITATEA
- 41 | DENBORAREN MAKINA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA: PILI CASTRO
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT



32 | KOMUNITATEA, ENERGIA MURRIZTEKO AKUILU

Estitxu Villamor ikerlariak Errekaleorren aurrera eraman duten ikerketaren berri eman du artikulu honetan: bertan irakur daiteke bizimodua antolatzeko moduak energia kontsumoan duen eragina eta Lurra jasangarri izateko murriztu beharreko energia kontsumoa zenbatekoa den. Baita energetikoki independente izateak zer abantaila dakartzan ere.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Atzera biderik gabeko arriskuak dakartzki klima aldaketaren eraginak konpentsatu nahiak

Nicolas Goñi

16 | PERTSONAIA | ALEJANDRA MILLER

Etorkizuna dago egia badago

Danele Sarriugarte

26 | EUSKARA

Nafarroa hegoaldetik sortu da euskararen aldeko bultzada berria

Leire Artola

36 | NAZIOARTEA | ERRUSIA

“Ikuspegi nagusia oso simple bilakatu da Errusian: gu onak eta haiek gaiztoak”

Vasilisa Petrovna

44 | KULTURA

Veneziako arte Bienala inoiz baino kutsu onirikoagoaz

Jone Alaitz Uriarte

46 | KULTURA | ONINTZA ENBEITA

“Eguneroko gauzak kantatu nahi ditut, modu gordinean”

Eli Pagola

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaina Taldeko partaidea

Lehendakaria

Onintza Irureta

Erredakzioa

Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Ezaguirre, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Leire Artola, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Peru Iparragirre, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Sorraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa

komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaina taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta

ADUR software productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egile eta aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.

OLATUKOOP

EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



Kolpez kolpe

Nazio Batuen arabera, 18 milioi pertsona “muturreko gosetea sufritzear” dira Sahelen –Saharako basamortuaren hegoaldeko eskualde zabala—. Zonalde horietako bat Burkina Faso da. Ez da herrialde pobrea, pobretua baizik. Soilik urrez, Burkinak 2.000 milioi dolar saltzen ditu urtean, baina sarrera gehienak Europa, Kanada eta Australiako meatze-multinazionalak bereganatzen dituzte. Burkina Fasok, Malik bezala, Mendealdeko Afrikako CFA frankoa erabiltzen du. Moneta kolonial horren erreserbak Frantziako Bankuan daude, eta hortik dute moneta-politika kudeatzen. Burkina Fason bi estatu kolpe izan dira aurten, eta Mendealdetik ikusten ditugu Afrika basatiaren enegarren pasarte bihurtuak. XIX. mende amaieran europarren kolonizazio militarrekin hasitakoak, militarren gobernuarekin du jarraipena XXI. mendean. Urrea inportatzen “dugu”, eta bortizkeria esportatu.

📍 Ibrahim Traoré militar eta presidente kolpista, Thomas Sankara agintari iraultzailearen hilketaren –Frantziak sustatutakoa– 35. urteurreneko ekitaldietan.

O. DE MAISMONT / GETTY IMAGES

AXIER LOPEZ



Haur baten bahiketak agerian utzitakoa

 JUNE FERNÁNDEZ

Emakume batek haurtxo bat bahitu zuen pasa den astean Basurtuko Ospitalean (Bilbon). Delitugilea aurkitzeko herritarren kolaborazioa eskatu zuen Ertzaintzak, eta segurtasun-kamerak grabatutako argazkia zabaldu zuten. Haurra hurrengo goizean aurkitu zuten, onik eta salbu, eta delitugilea atxilotu zutelarik, soilik adina aipatu zuen Segurtasun sailburuak, baina *Deia* eta *El Correo* egunkariak zabaldu zuten emakumeak haurdun zegoela sinetsarazi ziela senide, auzoko eta bikotekideari. Atxilotuaren izena eta zein auzotan bizi den zehaztu zuten, bizilagunek emandako beste xehetasun sentsazionalistez gain.

Hurrengo iruzkinak utzi zituzten irakurleek egunkarietako sare sozialetan: “Aurki dezatela, giltzapetu eta itsasadarrrera bota dezatela giltza”. “*Ni enajenación ni hostias*”. “Kartzelan ustel dadila”. Analisi kritiko honen asmoa da ikara eta punitibismoa pizten duten trataera informatiboa gailentzea, eta arretaren fokua aldatzea, gertakari isolatu baten morbotik egiturazko arazoen mamira.

Amatasun eszedentzian dagoen Osakidetzako medikua da Nora Olazabal. Albistearen berri izan duenean, ospitaleek bizi duten baliabide faltarekin lotu du segurtasunean egon den hutsegitea: “Plantillak oso aldakorrak dira. Oso ohikoa da langileak pabilioi batetik bestera

aldatzea, eta horrek suposatzen du jendeak ez duela elkar ezagutzen”.

Bestetik, azpimarratu du erditze-ondoko protokoloetan jasotzen dela jaioberriei probak gurasoen –edo amak izendatzen duen pertsonaren– aurrean egingo direla: “Nik badakit eskubide hori daukadala baina, tamalez, ama guztiek ez dakite. Informazio hori izatea ospitaleak bermatu behar du”.

“Osasun arloko profesionalek duten autoritatearen isla da ezezagun batek esatea zure umea eraman behar duela, eta zuk onartzea”

Donostiako Ospitalean antzeko bi kasu egon ziren 2012. eta 2014. urteetan. Katixa Agirre idazlearen esanetan, horrek erakusten du erditze-ondoko ospitalizazioa une zaurgarria dela guraso eta jaioberrientzat: “Oso bitxia da ezezagun batek esatea zure umea eraman behar duela, eta zuk onartzea, senak haurra babestea agintzen badizu ere. Hori ez litzateke gertatuko beste edozein eremutan, eta osasun arloko profesionalek duten autoritatearen isla da”.

Ildo beretik mintzo da Nahia Alkorta, amatasun prozesuak laguntzen dituen aholkularia: “Zaurgarritasun handia duen une batean, botere rol batetik edo nork haur bat besoetan ospitaletik atera ahal izatea izugarria da”. Bere esanetan, “familia ez da segurtasuna bermatzearen arduraduna, ez dute zertan mesfidati izan osasun langileez”. Neurri eraginkorrak eta baliabideak eskatu ditu: “Baliabide pertsonal gehiago plantako sarrera-irteerak kontrolatzeko (baina ez segurtasun enpresak), eta familiek behar ahal izan dezaketena jasotzeko administrari, auxiliar eta erizainen postu etengabea”.

EROTASUNAREN ESTIGMA

Cristina Barcala Zorua elkarteko kidearen ustez, agerikoa da ama izateko presioak estres emozional handia eragiten duela emakume askorengan. “Zer norabiderantz bideratuko du emakume batek erotasuna? Ez du auto-lantegi batean askatuko...”. Gaineratu du gizonak drogen abusuaren ondorioz garatu ohi dutela nahasmendu psikiatrikoa, baina emakumeen kasuan iturburua soziala dela: “Jendarte patriarkalak muturreko egoetara garamatza. Are gehiago emakumeak izateaz gain, pobreak edo arrazializatuak baldin bagara. Halakoetan errazagoa da kolapsora heltzea. Txakurra jipoitzen dugu eta, kosk egiten duenean, sakrifikatu egin nahi dugu”.

Amatasunarekin harreman gatazkatsu horren atzean egon daitekeen errealitate bat aipatu du: indarrezko esterilizazioak, emakume psikiatrizatu zein desgaitu askori inposatzen zaiena, izan ebakuntzen bidez edo ugalkortasuna kaltetzen duten botiken bidez.

Psikiatra da Nora Olazabal eta aitortu du psikosiarekin lotu duela atxilotuaren jokabidea. Bere esanetan, azken urteotan modan jarri da osasun mentalaren gaia, baina soilik arazo “bigunez” hitz egiten da, hala nola, antsietate arinaz. “Gaitz gogorre dagokionean, gizarteak nahiago du beste alde batera begiratu”. Edonola ere, kezkatuta agertu da hedabideek zabalduko duten narratibaz: “Heltzen zaigun mezua da zoroak direla umeak lapurtzen dituztenak”. ●



MATERIALISMO HISTERIKOA

Turista gara



UXUE APAOLAZA LARREA

Garai bakoitzak bere tenpluak ditu, botereak unean-unean jendeak zer gurtu behar duen erabaki duenaren arabekoak. Normalean, pertsonaren neurriak soberan gainditzen dituztenak, gora begiratzera garamatzatenak. Katedralak jainkoa bazen, ministerio neoklasikoak botere laikoagoak baziren, fabrikak lana bazen... Ondotik pasatzean handitasuna suma daiteke, zu zeu goratzen transzendentzia horren norabidean bazoaz, izutzen norabidez aldatuta bazabiltza. Turismoak horiek guztiak berrerabili ditu, esanahiz aldatuta, eta berriak eraiki, museoak kasu, Guggenheim, adibidez.

Hogeita bost urte bete ditu tenpluak, eta isildu dira momentuan ere erridikulutzat jo ziren kritikak, erridikuluak izaten baitira botereari komeni ez zaizkion gogoetak. Kostua aipatzen zen, Kultura sailetik ordaindutakoa; euskal kulturaren neurriko museoa ote zen galdetu zen, zertarako itaundu zen... Eta erantzuna zaplazteko moduan eman zen, eta ematen da. Izan ere, museoa arrakastatsua izan da: soberan bete ditu promotoreen asmoak. Bilbo ez da lehengo Bilbo, diote, museoari esker. Tenplua ez baitzen gure neurrira egin behar, gure neurriz gora bai-zik, transzenditzeko, gora begiratzeko, botereak une horretan, eta honetan, sinestu behar dugunari buruz erabaki duenaren norabidean.


Eta sinetsi behar duguna ez da artea, ez zaigu arrakastaren berri kontzeptu artistikoen bidez ematen, orain euskaldun batek arteaz lehen baino gehiago dakiela esanez, orain geure burua irudikatzeko dugun potentzialaren neurrien bidez. Datu ekonomikoak ematen zaizkigu, inbertsioa berdindu baino gehiago egin baita, turismoari esker. Tenpluaren ondotik pasatzen garenean, katedral baten ondoan bezain txiki gara, erlijioa etxe atariraino ekarrita.

Ez dugu hegazkinik hartu beharrik, azkenik, turista gara gure kaleetako espaloietan ere. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



Erraustegia

Ura drainatzeko baimendu gabeko tutu bat ezarri zuen Zubietako erraustegiak, eta Zubietako inguruko uren kutsaduraiturri dela salatu dute eragileek. Ikuskariak prebrikazioa egin ote duen ikertzea eskatu du 3fiskaltzak, legez kanpoko praktiken berri zuelakoan.

Greba

Soldaten emendioa eskatzeko eta Frantziako Gobernuak petrolio findegietako grebaliariak errekluzionatu izana salatzeke greba orokorra egin dute Ipar Euskal Herrian. Baionan izan da mobilizazio nagusia, 2.000 lagun inguru batu dira.



EKONOMIA

Ez da inflazioa pobre egiten gaituena



AINHOA ETXAIDE
AMORRORTU

Ingalaterrako lanuzteei, Berlineko manifestazioari edota Frantzia-ko Estatuko greba eta mobilizazioei inbidiaz begiratzeari utzi eta Euskal Herrian kalera ateratzeko aukera eskaini digu Euskal Herriko Eskubideen Kartak. Lekuan lekuko egoerek aterako gaituzte protesta egitera, eta herrialde bakoitzeko langileek lotuko dituzte euren aldarrikapenak norberaren errealitatearekin.

Baina finean, guztiok egoera berak mobilizatuko gaitu: geroz eta aberastasun gehiago metatzeko aukera dutela gutxi batzuek, gehiengoaren lanak ematen dituen etekinak bereganatzeko geroz eta botere gehiago dutelako. Muga gutxiago gure lanaren balioa gutxiesteko eta lanaren bidez sortzen dugun gainbalioa bereganatzeko. Lana merkatuan edo merkatutik kanpo egin. Lanak enplegu forma hartu, edota, etxeko lanekin gertatzen den bezala, maitasunaren izenean musutruk egiten dugun generoari lotutako eginkizunaren forma hartu.

Langileok erosahalmena galtzen ari garela ezin da ukatu, eta aurreikusi gabeko inflazioak bistakoa egin du atzetik datorren joera, bere neurri eta dimentsio osoan. Ez gaitu inflazioak pobre egin ordea, gure lanaren truke jasotzen dugun geroz eta soldata eskasagoek baizik; zaintza lanen kasuan, jasotzen ez dituzten soldatek pobretu dituzte emakumeak, bizitza osoa lanean aritu izan diren arren.

Atera gaitzen bada erosahalmena galtzen ari garela salatza, baina jarri dezagun auzia bere lekuan: gure lanei dagokien balioa aitortzea eta horren arabera ordaintzea zor digute. Zor horretan dago, hain zuzen, euren neurri-rik gabeko aberaste prozesua, gu pobretzen garen bitartean. ●

ANALISIA



Heriotzaz hitz egin dezagun

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Teoría badakigu, eta hala gogoraraziko digute Hildakoen Egunaren harira egunotako artikulua eta elkarrizketek: bizitzaren parte da heriotza, normalizatu egin behar dugu, naturalizatu, dolua pasa... eta horretarako erremintak badirela diote adituek, baina hain dira pertsonalak heriotzaren aurreko bizipen eta erreakzioak, hain dira ezberdinak kasuak. Ezustean, istripuz, gaixotasunez, zahartzaroz, suizidioz hil den semea, ama, aitona, bikotekidea, laguna, ikaskidea, lankidea, pisukidea... agurtzea ez da beti erraza. Irakatsi daiteke heriotzari aurre egiten?

Bi gauza garbi geratu zitzaizkigun, Naroa Martinez psikopedagogoari egin-dako elkarrizketan (ARGIAren 2.776 zenbakian): heriotzaz eta hildakoez hitz egitea saihesteak ez dio inori mesede egiten, eta oso galduta sentitzen gara umeekin gaia landu nahi dugunean. Lotuta daude biak, oraindik ere errealitatea delako deserosoa zaigula: haurra babestuko dugulakoan heriotza existituko ez bailitza jokatzeko dugu maiz –baina “umeari traumarik ez sortzeko bidea ez da heriotza ezkatzea, akonpainamendua egitea baizik”, dio Martinezek–; gure matrakarekin ingurukoak gogaituko ditugulakoan ez diegu kontatzen nola darabagun dolua –edo egiten ari ez garen dolua–, tanatorioan hiruzpalau hitz gurutatu eta handik aste batzuetara desagertzen da gaia, desagertzen da hildakoa, norberak bakardadean eramaten du bere motxila.

Motxila konpartituak gutxiago pisatzen du, eta tabua apurtzea da horretarako lehen urratsa: haurrek bakarrik ez, helduok ere baditugu gure beldur, kezka eta galderak, eta ez, ez ditugu erantzun guztiak, baina zalantzak partekatzeak eta elkarren akonpainamendua egiteak helduleku gehiago emango dizkigu gertatu den heriotza prozesatzeko, gertatuko den heriotzari errazago aurre egiteko, beldur handiagoa sortzen duelako ezezaguna den horrek eta hitz egin ez den horrek; etxean eta eskolan gaia jorratu dugularik jakin badakigulako badugula norrekin hustu barrenak; ulertuko dugulako ditugun sentimenduak izatea normala dela eta esaterako triste orde haserre egotea erreakzio normala dela... “Kontua ez da uneoro beldurra transmititzea –dio psikopedagogoak–, baina iskin ere ezin diogu egin heriotza gure bizitzaren parte dela azaltzeari”. Heriotzaz hitz egin dezagun. Eta barre, negar eta erritu artean gogoratu ditzagun gure hildakoak, haiek bizirik mantentzeko modua baita. ●

19

herritar hil ditu Frantziako Poliziak azken hamar hilabeteetan. 17 suzko armekin tirokatu dituzte poliziek; ibilgailu barruan ziren gidariak hil dituzte gehienbat, "autoritateari desobeditzeagatik". Desarmon-les atariaren datuak dira.

529

herritarrek ez dute etxerik Hego Euskal Herrian, 100.000 biztanleko. Espainiako Estatuko etxegabe gehien ditu biztanleko, INIren arabera. 2010etik gaurdaino etxegabekoen kopurua bikoiztu egin da EAEn.

3.000

euroko isuna ezarri zion Laudioko Udaltzaingoak Tubacexeko langile bati eta azaroan epaitegira helduko da auzia. Poliziak leporatzen dio hesi batzuk jartzea errepidean; langileak ukatu egin du.

"Konfrontazio hau gizateriarentzako heriotza-zigorra da, ez da inor irabazten aterako"

NOAM CHOMSKY

Pentsalari eta aktibistaren hitzak "Zergatik Ukraina" liburutik hartuak dira.

EL SALTO (2022-10-18)



"SARE PUBLIKO BAKAR, EUSKALDUN ETA PROPIORAKO BIDEA EGINGO DUEN HEZKUNTZA LEGEA BEHAR DUGU"

ELA, LAB, STEILAS

EAEko Hezkuntza lege aurreproiektuarekin kritiko, sindikatuak grebak antolatu dituzte azaroaren 30ean eta abenduaren 14an hezkuntza publikoan.

2022-10-21

"Hobeto nago nire etxean, lasaitasun handiagoa dut, askatasun handiagoa"

NAGORE BERGARA

Desgaitasun intelektuala duten pertsonen ere modu independentean bizitzeko eskubidea dute. Hori aldarrikatu du Atzegiren kanpainak, "Nire erara bizitzeko erronka" lelopean. Nagore Bergarak bere esperientzia kontatu du argia.eus-en.

2022-10-19



SocorroBot: desagertutako pertsonak bilatzeko



DIANA FRANCO

Mexikon “desagertu zaitzakete”, horrela adierazi ohi dute lur haietan pertsona bat bahitzea. Bahiketak hain ohikoak dira herri horretan, ezen eremu digitalean aktibista den eragile talde batek TxatBot bat sortu duen herritarrek administrazioekin eta legeekin izan ditzaizketen oztopoak gainditzea errazteko. Proiektu hau arrakalari loturiko adibide argia da, kasu honetan administrazioarekin eta legeekin harremanak izateko arrakalari lotua, ezagutzak pertsonengana helarazteko bidean sistemak sortzen dituzten arrakalei lotua. SocorroBotek iradokitzen dituen ibilbideak oinarritzen dira agintarien betebeharretan, dauden protokoloetan, adituen aholkuetan eta legetan.

Proiektuaren garapena GitLab-en aurkitu daiteke. Badirudi TxatBot zerbitzu bat erabili dutela, mezularitza plataforma ugaritara integratu daitekeena. Whatsappekin lotu dute, bai administrazioa eta lege sistema ulertzeko, bai mundu digitalean arrakala egoeran dauden pertsona gehienak eta beharbada horrelako proiektu baten erabiltzaile potentzialak pertsona xumeak direlako. Proiektu honen sustatzaileek diotenez, Mexikon pertsona xumeek Whasapp darabilte gehien.

Proiektuaren sustatzaileak dira Técnicas Rudas, Codeando México eta 5º Elemento kolektiboak. Jakitun dira, nolabait, pribatutasunaren ikuspegitik zenbait hutsune dituela ekimenak, eta pribatutasun oharrean hala ohartarazten dituzte erabiltzaileak, azpimarratuz TxaBot zerbitzuak funtzionatzeko telefonoa eta IP zenbakia hartu behar dituela.

Gure herrian, ez dugu ikusi halakoak gizarte zibiletik sortzea, baina Mexikon, non gobernu ezberdinak egon diren desagertze askoren atzean, sistematik kanpoko bideak sortzera bultzatu ditu herritarrak. Burokrazia konplexu, zurrun eta ugarietan argi pixka bat emateko helburuz. ●



RICHARD PIERRIN / GETTY IMAGES

Haitin, autodeterminazioaren alde eta injerentzien aurka

AXIER LOPEZ

Haitiko 11,4 milioi biztanletik ia bostek dute elikagai gabezia larria, gosetea “larritasun maila katastrofikora” heldu da hiruburuko auzorik jendetsuena den Cité Soleil-en, eta inflazioa %30etik gorakoa da, Nazio Batuen datuen arabera.

Testuinguru horretan, irailaren 12an, Ariel Henryren gobernuak erregeiaren kostua bikoiztuko zela iragarri zuen. Herritarrek gainezka egin zuten. Ordutik, matxinada herrikoia dago Haitin, kaleen kontrolaz jabetu diren ‘pandillero’ biolento batzuen kontutzat saltzen badigute ere telebistan. Izan ere, zaila da paralelismo ideologizatuak bilatzea, garai likido hauetan munduko erantzun sozial gehienetan gertatzen den bezala. Ez dago bandera gorririk, amorrua eta premia daude. Manifestazioak, erabateko geldialdiak eta errepide-mozketak daude, baita arpilatzeak eta hilketak ere. Protesta hauek 2016an hasitako erresistentzia-zikloaren jarraipena dira, 1991ko eta 2004ko estatu kolpeek, 2010eko lurrikarak eta 2016ko urakanak eragindako krisi sozialari erantzuteko sortuak, besteak beste.

Panorama ilunari heltzeko nazioarteko komunitate delakoak proposatu duen “konponbidea” ezaguna da: zigor ekonomikoak ezarri dituzte eta gizon armatuak bidali nahi dituzte Haitira. Mendebaldeko erretorikaz esanda, “Haitin operazio humanitarioak babesteko indarrak zabaldu

nahi ditugu”, NBEko idazkari nagusi Antonio Guterresen hitzetan, AEBek urriaren 15ean eskatutakoa ia mimetikoki kopiatuz. Hau da, beren interes politiko eta ekonomikoekin bat egiten duen gobernu babesteko esku-hartze militarra antolatzea, Kanadako eta AEBetako gobernuak uhartera bidalitako hegazkin militarrek erakutsitako ildora batuz.

Irailaren amaieran, Haitiko 42 erakundek gutun irekia bidali zioten Guterresi, eta, besteak beste, honako hau zioten: “Oraingoan, haitiarrek aukeratutako trantsizioko gobernu bat ezarri gero bakarrik utziko du herriak kalea. Zuk eta haitiarren borrodatearen aurka zaudeten nazioarteko gainerako eragileek kosta ahalakosta lagundu nahi duzuen Ariel Henry-k uko egin behar dio aginteari, ezinbestean. Gogoan izan beharko zenuke NBEk azken hemezortzi urteetan (2004-2022) Haitin egindako misioek porrot ukalezina izan dutela. Egoera hobetzen lagundu beharrean, egoera okertu zuten guztiek”.

NBERen presentziak kritika ugari jaso izan ditu Haitin, Herrien Nazioarteko Asanbladak azpimarratu duenez. Adibidez, 2010eko lurrikara gertatu eta gutxira hasi zen kolera-epidemia larriaren jatorria kasko urdinek ibai batera isuritako hondakin beltzak izan zen, eta NBEko “bake indarretako” soldaduek hainbat urtez egin zituzten bortxaketak eta sexu-erasoak. ●

Trantsizio ekologikoa aldarri

📷 SORTU

LEMOIZ / "Guztion bizitzak zeharkatzen dituen larrialdi klimatikoaren eta kapitalismoaren aurrean, trantsizio ekologiko justu eta demokratikoa" aldarrikatu du Sortuk, Lemoizen egindako ekintzan. "50 urte betetzen dira Lemoizko zentral nuklearreko eraikuntza lanak hasi zirenetik, eta herri oso baten borrokari esker lortu genuen zentral nuklearraren proiektua bertan behera uztea. Orduan egin genuen, eta orain ere egingo dugu: mobilizazioa, antolakuntza eta borroka".



Presoak

Aurten 72 urte beteko dituen Jakes Esnal preso ziburutarra espetxetik atera da, 32 urte eta erdi preso egin ondoren. Etxean jarraituko du zigorra betetzen, kontrol neurriekin. 2020ko maiatzean erabaki zuten auzitegiek, baina fiskaltzak behin eta berriz blokeatu du Esnalen baldintzapeko askatasuna.

Osakidetza

Osakidetza 2.109 lanpostu egonkortu eta beste 358 sortuko dituela iragarri du Eusko Jaurlaritzak. LAB eta ELA sindikatuek erantzun dute propaganda eta itxurakeria kanpaina bat dela, langileen behin-behinekotasuna baimendutako %8 baino altuagoa delako oraindik ere.

Sutea

Beroak, haizeak eta lurraren idortasunak eraginda, sutea piztu zen urriaren 22an Balmasedan, Arabako mugatik gertu. Zalla eta Goredexola ere kaltetu ditu suak. Astekari hau itxi dugun unean (urriaren 24an), 500 hektareatik gora kiskali ditu suteak eta hiru baserri erre ditu.

GEOINGENIARITZA: ATZERA BIDERIK GABEKO ARRISKUAK DAKARZKI KLIMA ALDAKETAREN ERAGINAK KONPENTSATU NAHIAK

Duela guti zientzia-fikzioztat genituen egitasmo batzuk gero eta errealago bilakatu daitezke. Azken hamarkadan, atmosferaren ezaugarri fisiko eta kimikoak aldatzeko teknikak konponbidetzat hartzen dira IPCC Klima Aldaketari Buruzko Gobernu Arteko Taldearen azken txostenetan ere, izan aireko karbono gehiago biosferan xurgaraziz edo eguzkiaren izpien zati bat espaziora islatuz. Teknika horien helburua munduak bizigarri jarraitzea bada ere, oraindik ezagupen hutsune asko daude, eta klima bezalako sistema konplexu bat aldatzearen albo-kalteek betirako iraun dezakete.

 NICOLAS GOÑI

Berotegi efektua murrizteko geoingeniaritza aipatzerakoan, konkretuki bi kontzeptu nagusi biltzen dira: bata, atmosferatik gainerako CO₂ edukia kentzea, biosferan xurgaraziz (ozeanoetan edo lurretan) edo lurpeko harrietan metatuz. Bertzea, eguzki izpien zati bat (%2 inguru) espaziora islatzea, SO₂ sufre dioxidoa estratosferan (20 kilometroko garaieran) barreiatuz. Filipina uharteetako Pinatubo sumendiaren erupzioaren ondotik agertu zen bigarren ideia hori: 1991n sumendiak 17 megatona SO₂ atmosferara isuri zituen, ondorengo bi urteetan atmosferaren 0,5 graduko hozketa eraginik. Ezagurri hori berotegi efektua arintzeko baliatu nahi izanez gero –SO₂ hegazkinez barreiatuz estratosferan–, modelo gehienek arabera urtean eta mundu mailan 8.000 milioi dolarreko aurrekontua aski liteke. Halere, barreiatze hori hasiz gero ezinen litzateke inoiz gelditu, atmosferako BEG Berotegi efektuko gasen metaketarengatik bapateko beroketa jasanezina litzatekeelako giza jarduerentzat.

**Estratosferan SO₂
barreiatzeak ondorio
ezezagun asko daramatza.
Nola ziurtatu klima
konpontzen saiatuz
sorturiko kalteak ez direla
konponduezinak izanen?**

Karbonoa xurgarazteak ez luke suposatuko gas bat gehitzea atmosferan, baizik eta soberan dagoen CO₂ kentzea eta metatzea, fisikoki –airetik zuzenean xurgatuz– edo biologikoki –ozeanoak burdin hautsaren bidez “emankortuz” adibidez–. Burdin hautsa erabiltzearen

asmoa da fitoplankton biomasa igotzea, sortuko lukeen biomasa itsas hondoon luzarako metatzeko gisan.

Atmosferan SO₂ barreiatzea baino seguruago dirudi. Baina askoz garestiago litzateke: CO₂ aski xurgatu nahi izanez gero, gaurko munduko zamaontzi guztiak mobilizatu beharko lirateke, eta burdin meategietan ustiapen ahalegina neurri kolosalean igo, CNRSko ikerlari Amy Dahanen arabera. Karbonoaren xurgatze industrialerako teknikak ez dira oraindik prest; eta daudenak garestiak izateaz gain –inbertsion eta energian–, dudakorrek ere dira segurtasunaren aldetik.

KLIMA ERALDAKETARENA, IDEIA ZAHAR BAT

Oihanen mozteak eurien zikloan zuen eragina abiapuntu, XV. mendean piztu ziren klima eraldatu nahiaren inguruko eztabaidak. 1494an ohartu zen Kristobal Kolon udako arratsaldero eurite trinkoak gertatzen zirela Karibeko uharteetan –Kanarietan edota Madeiran oihanak moztu aurretik zeudenak bezalakoak–. Kolonen iritziz, bertan ere

"KARBONO BONBA"-RI EZ

Sumendi gehienek sufre dioxidoa isurtzen dute erupzioetan. Berotegi efektua konpentsatzeko, gas hori baliatzeko asmoa luke atmosferaren geoingeniaritzak.

J.D. GRIGGS, 1985/10/21

aldintza mesedegarriagoak izanen ziren -Europa mendebaldekoak, alegia- oihan aski moztuz. Bertako indigenoak ulermen hortaz oraindik jabetu ez zirelakoan zeuden Kolon eta kolonoak, horrela esplikatzuz bertako klima giza jarduerentzat desegokia izana. Ideia horri tiraka zeritzoten indigenoak ez zirela benetan lur haien jabeak, eta ahulak zirela ez baitzituzten lurak "lantzen" -hots, oihanak mozten-.

XVIII. mendean, Frantziako iraultza-
ren aurreko urteetan, erran ohi zen mo-

narkiak ez zituela oihanak ongi kudeatu eta horren ondorioz zela klima kaltetu, goseteak eta populazioaren "endekape-na" eraginez. Frantziako oihan gehienak erregearen jabetza ziren, eta iraultza eta gero, lehengo oihan komunalak berreskuratzea espero izan zuten base-rritarrek; baina botere burges berriak azaldu zien ezer "endeka" ez zedin oihanak zurrunki kudeatu behar zirela estatuaren eskutik. Garai bateko kontzeptu amankomunek garai horren testuinguru kulturala eta ideologikoa islatzen dute,

gaurko kontzeptuek gure testuingurua islatzen duten bezala.

ZALANTZA ETA ALBO-KALTEEN ZERREDA LUZEA

Ozeanoen "emankortzeko" tekniken inguruan, Kanadako *Fertilisation des océans: atténuation des impacts environnementaux de la recherche scientifique* ("Ozeanoen ongarritzea: ikerketa zientifikoak eragindako ingurumen inpaktuen ahultzea") ikerketaren arabera, ondorio txarren artean zerrendatzen dira azale-




ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

www.zinkunegioptika.com





ITURRIA: OCEANNETS

ko uren oxigeno edukia murriztea, uren azidifikatzea, fitoplankton komunitateen aldatzea eta horren eragin ezezagunak, baita berotegi efektuko gasen ekoizpena ere –horietan bromometanoa, ozono geruza kaltetzen duena–.

Estratosferan horiek dira SO₂ gasaren albo-kalteak: tropikoetan eurien zikloak desorekatzea; tokiko lehortegogorak eragitea (Pinatuboko erupzioaren ondorioz ikusi zen bezala); zeruaren kolore urdina histera eta zuritzea, baita ozono geruza kaltetzea ere. Beroaketa gelditzeaz dagokionez, IPCCko klimatologo Alan Robocken arabera ongi funtzionatu luke tropikoetan, baina ez latitude handietan. Horren ondorioz bien arteko tenperatura tartea gutituko litzateke eta jet-stream haizea gehiago moteldu, gure latitudeetan muturreko gertaera meteorologikoak ugalduz.

Arazo teknikoei gehitu ditzazkegu arazo legalak eta etikoak: atmosferaren jabetza eta ardura hutsune juridiko batean daude. Elon Musk bezalako dirudun handinahi bati bururatzen bazaio bihar estratosfera eraldatzen hastea, nork luke debekatzeko ahala? Ekoizpen sistema globala oraindik erregai fosilen

Historian zehar, baliabideak kontrolatzeko asmoarekin bat zetorren klima eraldatzeko asmoa, baina klimaren mekanismoen ulermen okerrean oinarritzen zen

menpe egonik, geoingeniaritzak ez ote luke BEG isurketa jaisteko motibazioa zapuztuko? Estratosferaren eraldaketa etengabe jarraitu behar suposatuko lukeen gaitasun materiala nola bermatu? Eta garrantzitsuenak: klima hain

sistema konplexua izanik, nola ziurtatu konpondu nahian sorturiko kalteak ez direla konponezinak izanen?

Batzuen ustez, baliteke bero uhin gero eta gogorragoen –eta hilgarrien– eraginez populazioek berek geoingeniaritza eskatzea, une batean hil ala biziko erabakia litzatekeelako, albo kalteak egonik ere. Hori deritzote, adibidez, Jean-Baptiste Fressoz tekniken eta ingurunearen historialariak, edota Kim Stanley Robinson idazleak. Fressozek bertze adibide bat ematen du, laborantzaren inguruan: ongarri sintetikoak eta industrializatzaren bidez, lurzoruen ekosistemak sakonki eraldatu ditugu azken 70 urteetan –Marcel Bouché agronomoaren arabera, zizareen biomasa %90 desagertarazi arte–, eta albo kalte horiek onartuak dira. Modu berean onartuko lirateke, bere ustez, geoingeniaritzaren albo-kalteak. Hailere, bi diferentzia garrantzitsu ditugu hemen: ez ginateke soroz soro ariko, baizik eta Lurraren sistema klimatikoa osorik eraldatuko genuke; eta lurzoruari egindakoak ez bezala, sistema klimatikoari egindako kalte asko atzeraezina lirateke. ●

GOZATU UDAZKENA

Udazkenaz gozatzeko landareak, lanabesak, ongarriak eta sasoiko lanak egiteko osagarri guztiak eskaintzen dizkizugu.



Kanpoko landareak, zuhaixkak eta zuhaitzak



Barruko landareak



Lanabesak



Erraboilak eta haziak



Ongarriak eta tratamenduak

Ekoizleak gara

Alejandra Miller

BAKEA DENENTZAT ERAIKIZ

ETORKIZUNA DAGO EGIA BADAGO

Alejandra Millerrek argi dauka, gatazka baten ostean, mundu guztiarekin hitz egin behar dela. Isilarazitako ahotsak eta narrazioak biltzen saiatu da, besteak beste, Kolonbiako Egiaren Batzordearen barruan, herrialde horretako gatazka armatuak era guztietako emakumeei eta LGBTIQ+ pertsoneri nola eragin dien aztertuz. Izan ere, aurten aurkeztu du Egiaren Batzordeak bere txostena –11 liburuki–. Donostian egon ziren irailean, beren esperientziaren berri ematen udako ikastaro batean.

 DANELE SARRIUGARTE  DANI BLANCO

Kolonbiako bake-prozesuaren barruan, Egiaren Batzordeko kidea izan zara. Azalduko zenidake horren testuinguru orokorra?

Egiaren Batzordea, funtsean, bake-prozesuaren ondorioz sortu zen. Estatuak eta FARC gerrillek –Amerikako kontinentekeo gerrilla talderik handiena eta zaharrena– bake-akordio bat sinatu zuten 2016an, eta, hala, trantsiziorako hiru erakunde sortu ziren: Bakerako Justizia Berezia, Desagertutako Pertsonak Bilatzeko Unitatea eta Egiaren Batzordea. Gu 2018aren amaieran hasi ginen lanean. Hautaketa Mahaiak hamaika batzordekide aukeratu zituen, gizonak zein emakumeak, tartean na-

zioarteko eragile asko. Batzordekide gisa Kolonbiako mugimendu feministak proposatu ninduen.

Aipagarria da era honetako prozesu batean emakumeen eta LGBTIQ+ kolektiboaren egoerari zehazki heltzen dion talde bat egotea.

Oso garrantzitsua iruditzen zait Kolonbiako emakumeen mugimenduaren eta mugimendu feministaren eragin politikoa, eta batzordearen osaketa-dekretutik bertatik argi geratzea genero-lantalde bat sortu behar zela, ekintza guztietan ikuspegi hori aintzat hartuko zela bermatzeko. Lanean hasi ginen, eta genero-taldea osatu genuen: horrek

jendea eta baliabideak eskatzen zituen, genero-ikuspegia ez zedin titular hutsa izan. Bestalde, bermatu beharreko beste gauza bat zen batzordearen txostenean kapitulu zehatz bat eskaintzea emakumeei eta LGBTIQ+ pertsoneri gatazkan gertatu zaizkienei.

Zer gertatu zaie emakumeei eta LGBTIQ+ pertsoneri gatazkan? Zer azpimarratuko zenuke?

Zer gertatu zen, zergatik gertatu zen eta zer ondorio izan zituen aztertu dugu. Eta, bereziki, indarkeria oso masiboak aipatu ditugu txostenean: batetik, lurraldeen desjabetzea eta derrigorrezko lekualdatzeak, eta, bestetik, indarkeria



Alejandra Miller

CALI, KOLONBIA, 1970



Ekonomialaria, ikertzailea eta unibertsitateko irakaslea lanbidez, konpromiso sozial handia erakutsi du, batez ere Kolonbiako mugimendu feministaren barruan. Bere herrialdeko bake-prozesuaren harira, Bakearen Batzordeko kidea izan da, eta berak zuzendu du batzorde horren barruko genero-taldearen jarduna. Ruta Pacífica de las Mujeres [Emakumeen Bidea Bakearen Alde] taldeko kidea da.

sexuala, noski. Eta horren ondorioak: emakumeak demokraziatik kanporatu zituzten.

Lekualdatzeen kasuan, emakumeei gehiago eragin zien?

Lau milioitik gora emakume behartu zituzten beren lurraldeak uztera. Emakumeen gorputzak kontrolatzeko prozesu bidez, eragile armatuei errazagoa gertatzen zitzairen lurraldeak kontrolatzea. Estrategia militar bat izan da. Emakumeei mehatxu egitea eta haiek lekualdatzea askoz eraginkorragoa da gizonak lekualdatzea baino, zeren emakumeek alde egiten dutenean ez dira bakarrik joaten, beren kargu daudenean baizik, eta komunitateen desegituratzea ere badakar horrek. Lekualdatzearekin batera gabetzea aipatu behar da, lurren lapurreta eta emakumeek beren lurretan zeukatzen guztia kendu izana. Bestalde, ikusi dugu sexu-indarkeriari lotutako mehatxuak oso eraginkorrak izan direla lurraldeak azkar husteko eta eragile armatuen eskuetan geratzeko.

Nola landu duzue sexu-indarkeriaren gaia?

Genero-indarkerian oinarritutako indarkeria espezifikoa dira sexu-indarkeriak. Horren erakusgarri argia da datu hau: gatazka armatuan sexu-indarkeria jasotako biktimen %90 emakumeak izan ziren. Bortxaketatik harago, sexu-indarkeriaren hamahiru modu identifikatu ditugu. Horiek ere aitortu nahi genituen, zigor kodean agertzen ez diren arren. Azkenik, ez genuen *tabula rasa* egin nahi, hau da, ez genuen esan nahi denek "bortxatu zuten eta gauza bera izan zen eremu guztietan". Xehetasunetan sakondu nahi genuen: zer taldek, zer garaitan eta zer lurraldetan gauzatu zuten indarkeria zehaztu nahi genuen. Hala, dokumentazioa, testigantzak eta bestelako iturriak ikertuz, ondorioztatu dugu eragile guztiek ez zutelako sexu-indarkeria gerrako estrategia politiko gisa erabili, eta hor badi-ra azpimarratu beharreko alde batzuk.

Adibidez?

Paramilitarren kasuan, 1995etik 2005erako garaian, ikusi dugu se-

xu-indarkeria gerra-estrategia gisa erabili zutela, batez ere emakumeak lurraldetik ateratzeko eta zeukatena kentzeko. Hori oso argia izan zen Karibeko, Metako eta Putumaioko talde paramilitarretan. Poliziari dagokionez, ezin izan dugu identifikatu estrategia bat zenik, baina ikusi dugu sexu-indarkeria erabili zutela etsai gisa identifikatutako emakumeen aurka, atxilotu politikoak edo gerrillaritzat jotako emakumeak zigortzeko.

Eta gerrillen kasuan?

Gerrillen kasuan ezin izan dugu identifikatu politika bat zenik; are, zigor handiak zehazten ziren horren aurka araudietan, eta lekukotzen bidez jakin dugu zigor itzelak ezarri zitzaizkiela sexu-indarkeria gauzatzen zutenei. Edonola ere, sexu-indarkeriak gauzatu zituzten, garai batzuetan gehiago. 90eko hamarkadan batez ere, zeinetan gerraren degradazio bat gertatu baitzen gure ustez, narkotrafikoaren sarrerarekin eta hedapen militar gero eta handiagoarekin. Estrategia politiko bat izan ez arren, sexu-indarkeriak abantailak zekarzkien gerrillei, beldurra eragiten duelako eta horrek subordinazioa edo lekualdatzea dakartzalako.

“
**Emakume lesbiana
asko bortxatzen
zituzten, emakume izaten
ikas zezaten, edo, zenbait
kasutan, ama izatera
behartzeko”**

Indarkeria erreproduktiboa, ordea, bai izan zen FARCen politiketako bat.

Uste dut interesgarria dela indarkeria erreproduktiboari erreparatu izana, lehenengo aldia baita Egiaren Batzorde batek fenomeno zehatz honi heltzen diona. Guk, batez ere, derri-gorrezko planifikazioa aztertu dugu, zeina, zuk diozun moduan, FARCen politika zehatz bat izan baitzen: gerrillan sartzen ziren emakume guztiak haurdun ez geratzeko neurriak hartu behar zituzten, eta, haurdun gertatuz gero, abortatu egin behar zuten. Salbuespenak ere baziren. Gatazka handiagoko eremuetan araua zorrotz betetzen zen, eta beste bloke batzuk malguagoak ziren. Gero, salbuespenak izaten ziren komandanteen bikotekideen kasuan. Haurdunaldia garatzen uzten zieten, nahiz eta gero haurrak familiarengana-edo bidali.



Erreparatu diezaiogun LGBTIQ+ kolektiboari. Zer indarkeria mota jasan dute gatazkan?

Eragile armatuek goitik behera kontrolatu nahi zituzten lurraldeak, eta horren baitan, jakina, ordena moral heteropatriarkal bat ezarri nahi zuten eta horrek inpaktu handia izan zuen LGBTIQ+ pertsonen gainean. Hiru indarkeria-modu aurkitu ditugu nagusiki: mehatxuak, derrigorrezko lekualdatzeak eta sexu-indarkeriak (oso nabarmen emakume transen kasuan). Sexu-indarkeria hainbat helbururekin gauzatu zen. Aipagarria da zentzabidea esaten zaiona. Emakume lesbiana asko bortxatzen zituzten, emakume izaten

ikas zezaten, edo, zenbait kasutan, ama izatera behartzeko.

Arlo horretan gizaratearen konplizitatea nabarmendu duzu.

Bai. Armatuak komunitateetara iristen zirenean, hango jendearengana hurbiltzeko modu bat izan zen "garbiketa soziala" esaten zaiona, hau da, mespretxagarritzat jotzen dena ezabatu behar zen, eta hor tartean zeuden prostituzio-egoeraren dauden emakumeak, LGBTIQ+ pertsonak, lapurtzat jotzen zirenak, droga-kontsumitzaileak eta abar. Kolonbiako gizarateak bazekien LGTBIQ+ pertsonen aurka indarkeria handia gauzatzen zela, eta txalotu egiten zuen, baimendu egiten

zuen. Gizarte gisa begiratu behar dugun ispilu nagusietako bat da.

Paramilitarren eta gerrillen artean bereizketarik egin al duzue indarkeria LGBTIQ+fobikoan ere, emakumeen aurkako sexu-indarkeriaren kasuan bezala?

Paramilitarren kasuan, halako indarkeriek LGTBIQ+ pertsonen deuseztapena bilatzen zuten. FARCen kasuan, lehenik instrumentalizazioa bilatzen zen, baina baita deuseztapena ere. Eta fronteen arabera ere bada: fronte tradizional zaharretan, 60ko hamarkadan sortutakoetan adibidez, mehatxuak izaten ziren: kolektiboko pertsonak alde egitea

AXUT!

(HONDAMENDIA)

ANDER LIPUS · ANE SAGÜÉS · RUTH GUINERÀ
JON ANDER URRESTI · MAIALEN BELAUSTEGI
MAITE LARBURU · MANEX FUCHS · ENKO GIL

IDAZLEA: HARKAITZ CANO ZUZENDARIA: XIMUN FUCHS

hondamendia.eus

ARTEDRAMA

EMANALDIAK

URRIAK 28, 29, 30 DONOSTIA

AZAROAK 1 EIBAR
AZAROAK 8 ARRASATE
AZAROAK 10 LARRESORO
AZAROAK 18 HENDAIA
AZAROAK 20 BILBO
AZAROAK 22 HERNANI
AZAROAK 24 SANTURTZI
AZAROAK 27 LESAKA

bilatzen zuten. Pazifikoko fronte berriagoetan, aldiz, kokainaren kontuarekin-eta, zuzenean deuseztatzen zituzten. Eta, noski, erbestea ere aipatu behar da. LGTBQ+ biktima asko joan ziren erbestera. Hortaz, nire ustez elementu oso mingarri baina funtsezko bat daukagu hor gizarte moduan.

Emakumezko gerrillari ohiekin ere bildu zarete.

Bai, atal bat eskaini diogu gai horri. Batetik, emakumeek gerrillarekin bat egiteko motibazioak aztertu ditugu. FAR-Ceko emakumei buruz estereotipo bat nagusitu izan da beti: beren komunitatetik bahitu, bortxatu eta abortatzera behartutako neskatok zirela. Jakina, izan ziren derrigorrez errekrutatutako neskatok, baina ez ziren gehiengoak. Estereotipo hori apurtu behar zen, eta emakumeak berez onak eta zainzaileak direla dioen rol hori desnaturalizatu. Eta horretan sakondu dugu emakumeen beren testigantzen bidez.

Zergatik egin zuten bat emakumeek gerrillarekin?

Hainbat arrazoiengatik. Batetik, erabaki politikoz. Hau da, herrialdea eraldatzeko bide bakarra borroka armatua zela uste zuten, eta altxamenduekin bat egiteko erabaki kontzientea hartu zuten. Beste batzuek, berriz, etxean jatekorik ez zutelako bat egin zuten gerrillarekin; batez ere lurraldean bertan zeuden emakume nekazarien kasua da hori. Horrez gainera, beste emakume batzuek sexu-indarkeriari edo familia barruko indarkeriari ihes egiteko aukera aurkitu zuten gerrillan.

Gatazkak eta bake-prozesuak zer ondorio izan dute gerrillari izandako emakumeen gainean?

Era guztietako ondorioak, noski. Batetik,

abortatzera derrigortu izanak sekulako eragina izan du, gorputzetik beretik hasita. Zenbait emakume zortzi edo bederatz aldiz behartu zituzten abortatzera, oso baldintza kaskarretan.

Bestalde, emakumeak bizitza zibileratutuli direnean, horrek ere izan du eraginik. Askok zaintza-lanen ardura hartu behar izan dute, eta bizitza pribatuan daude, lidergo politikorako aukerarik gabe. Hor talka handia dago. FARCi dagozkion hamar kongresistatik bi baino ez dira emakumeak, eta hortik behera antzeko edo okerrago.

Iván Duqueren agintaldian aritu zarete lanean. Ez dizue jarduna erraztu.

Esan daiteke batzordeak haize politikoa kontra izan duela, [Duqueren] gobernua etengabe saiatu baita bake-akordioari zilegitasuna kentzen. Lanerako oinarritzko baliabideak baino ez ditugu izan, eta asko nazioartetik jaso ditugu. Gainera, une zaila egokitu zitzaigun, gatazkak berriro piztu baitziren. Baina gure ikerketa-lana, publikoa izan arren, eztabaida politikoa presente egon arren, aldi berean diskretua zen, eta horrek lagundu egin digu, hein batean. Ez zen erraza izan lekukotasunak aurkitzea, baina lortu genuen. Lurraldeetako taldeak itzel jardun dira: ibaiak zeharkatu dituzte eta zaldiz bidaiatu dira zazpi orduz komunitateetara iristeko. Ez zuten beldurrik, eta hori egundakoa da.

Abuztuan hauteskundeak izan ziren Kolonbian, eta aldaketa ekarri dute. Uste duzu Gustavo Petroren gobernu berria lagungarria izango dela bake-prozesurako?

Guk eraldaketa sakonerako gomendio batzuk proposatu ditugu. Azken batean, batzordean beti erantzun nahi izan dion gu galdera berari: zergatik errepikatzen da gerra Kolonbian? Aukerak izan diren arren –1991ko irekidura demokratikoa eta 2016ko bake-akordioa, besteak beste–, zergatik ez gara gai izan gerra geratzeko? Orduan, gerraren iraunkortasun-faktoreak bilatu nahi ditugu: horiek konpondu ezean, gerra errepikatuko da, eta gure gomendioak oso argiak dira zentzu horretan. Hori esanda, gobernu berri honek oso ondo hartu

“

**Kolonbiako
gizarteak bazekien
LGBTQ+ pertsonen
aurka indarkeria handia
gauzatzen zela, eta
txalotu egiten
zuen”**

du batzordearen lana, eta, ez hori bakarrik, Petrok bere botere-hartze diskurtsoan esan zuen batzordearen gomendioak zorrotz bai zorrotz beteko zituztela.

Lehen esan duzun moduan, zuek lanean ari zineten bitartean, gatazka berriro piztu da. Beste talde armatu batzuekin (ELN, adibidez) bake-akordioak lortzea izan daiteke hurrengo pausoa?

Guk proposatu dugun gomendioetako bat horrekin lotuta dago, noski, gobernuak “bake totala” eta guk “bake handia” deitzen dugun horrekin. Horren harira, elkarrizketa- eta negoziazio-prozesuak abiatu behar dira altxamendu armatuan jarraitzen dutenekin, baina ez haiekin bakarrik. Gure ustez, mundu guztiarekin hitz egin behar da, konnotazio politikoa duten altxamenduekin, jakina, baina baita armak dituzten beste guztiekin ere –kriminalitatearekin edo legez kontrako errentarekin lotutako talde armatuak, adibidez–. Batzuekin eta besteekin ez da eskema bera erabiliko, baina ahalegin handia egin behar dugu fusilak isilarazteko eta beste eraldaketa sakon batzuk gauzatzeko. ●





Euskara, politika, zientzia eta fabulazioa



KARMELO LANDA
HISTORIALARIA

Zientziari begiratzen diogu giza-kiok gure errealitatea, edozein arlotan, zehatz ezagutu eta arazoei modu eraginkorrean aurre egiteko premia dugunean. Horrela izan da gizateriaren historian, eta horrela izan beharko luke gaur egun. Baina maiz gertatzen da zientziaren aplikazioa eta hortik datozen ondorioak ilundu eta baztertu ere egiten dituztela botere desberdinetatik, beraien komenientziak beste bide batetik doazelakoan. Era horretako kasuetan, zientzia makurrarazi eta, haren ondorio argi eta zehatzen tokian, fabulazio antizientifikoak lehenesten eta inposatzen dizkigute. Bada, horixe ari zaigu gertatzen. Zientzia aplikatuak, hau da, soziolinguistika zientifikoak baiez-tapen zehatzak eskaintzen dituenen, botere desberdinetatik *“soziolinguistika politikoa”* delakoa asmatzen dute eta euskararen egoeraz eta etorkizunaz fabulak eskaintzen dizkigute.

Euskararen Historia liburu argitaratu eman zuen, duela lau urte, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politika sailak, hainbat adituren lanek osatua eta, beraz, zientziaren eremuan kokatzeko asmoa zuena. Baina ondorioen atalean hau idatzi zuen aditu horietako batek: *“Esan daiteke, inoiz ez bezala, oraingo belaunaldien esku dagoela hizkuntza-ren etorkizuna: nahi badute, erabiliko dute”*. Baiez-tapen hori erabat faltsua da zientziaren ikuspegitik, Jaurlaritzari mesedegarri bazea ere, haren Hizkuntza

Nazionalismo
linguistiko
zapaltzailearen
ideologia da
elebitasuna deitua,
euskara ordezkatzeko
amarru hutsa

Politikaren emaitzak makilatu eta edertu egiten dituelakoan. Soziolinguistika zientifikoak argi utzi baitu euskararen etorkizuna faktore konplexu eta indartsuen mende dagoela, baina ez, hain zuzen ere, euskal hiztunen esku, besterik gabe. Euskal hiztunok euskara erabili nahi arren, ezin izaten dugu erabili kasu gehienetan, orain eta hemen erabileraren aurkako faktore erabakigarriak daudelako, euskararen erabilera libre trabatzen digutenak.

Baina zein da, bada, euskararen egoera orain eta hemen? Zer dio soziolinguistika zientifikoak? Euskararen estatusa eta erabilera aztertuz, *elebitasuna* deitzen den estatus arautua fabula hutsa dela, eta ez adierazpen zientifikoa, er-

dara (izan espainiera, izan frantsesa) eta euskara ez daudelako pareko egoera orekatuan, legeaz eta erabileraz euskara mende hartzen baitute erdara biek. Derri gorrezko diren bakarrak erdarak baitira Euskal Herrian, eta ez euskara. Nazionalismo linguistiko zapaltzailearen ideologia da *elebitasuna* deitua, euskara ordezkatzeko amarru hutsa.

Okerrena da, euskal politikagintzaren eremuan bertan, ideologia hori bereganatu egin dutela alderdi abertzale deituek, eta *“elebitasunaz”* zein *“kultura pluraltasunaz”* mintzo dira barra-barra, azterketa zientifikoaren ordezkari fabulazioa besarkatuz. Bitartean, indarrean den hizkuntza politika autonomiko horrek, *“elebitasun”* horren bitartez gizarte osoa erdalduntzea errazten du, eta euskaldun sentitzen ez diren belau-naldi berriak elikatzen ditu. Sistema espainiarraren eta frantziarraren mesedetan, espainiera eta frantsesa hizkuntza *“natural”* bihurtzen ditu gazteen artean.

Zientziak oso bestelako alternatibak markatzen dizkigu. Bizi dugun egoeran irauli egin behar dugu euskararen egoera soziala. Ere euskaldunetan euskara bihurtu behar dugu hizkuntza nagusi, horretarako behar den guztia eginez. Euskal polisistema nagusi bihurtu, horretarako erdarak desikasi behar badi-tugu ere. Zientzia euskaldunon alde jarri nahi badugu, behintzat, oso bestelako Hizkuntza Politika zientifikoa behar dugu gurean. ●

Liburu zahar berriak



KATIXA DOLHARE-ZALDUNBIDE
LITERATUR ZALEA



ANTTON OLARIAGA

Duela zonbait hilabete, 2022ko urtarrilaren 16an hain zuzen, artikulatu interesgarria argitaratu zuen Peru Iparragirrek: *Euskarazko liburu zaharrek irakurle berririk bai?* Azpimaratu zituen egia deitoragarriak: gure literatura zaharra, bereziki klasikotzat daukaguna, ez dela gehiago eskuragarria, erdiesgarria beharko lukeelarik modu batu eta estandarizatuan, manera egokitan; hots, belaunaldi gazteek ez dutela paradarik iturri zaharretik edateko. Arrunt ados nago ikuspegi horrekin: kultura nagusiek egiten duten bezala, guk ere berrargitaratu beharko genituzke gure klasikoak, aurkezpen didaktiko eta kritiko mamitsu bezain erakargarriarekin.

Gogoan ditut bereziki idazki zaharrenak, Erdi Arotik heldu zaizkigun zati apurrak, Errenazimentuko garaikoak eta aro neoklasikokoak, erran nahi baitu XIX. mende aitzinekoak. Testu horiek are urrunagoak, eskuragaitzagoak eta ulertezinagoak dira egungo jende gehienarendako, ikasten ari denarendako ere bai. Bizkitartean, gurea osatzen dute eta ez genituzke arrotzu behar.

Ikusiz, gainera, aspaldiko denbora horietako testuak urriak direla, Europako beste hizkuntzetako lan literarioak

ere plazaratu beharko genituzke euskaraz, jakin gosez dagoenak aukera ukan dezan korrante literario zabalean kokatzeko euskal literatura zaharra.

Hortaz, eskertzekoa da Nafar Ate-neoak eta Booktegi plataforma digitalak iaz bideratu zuten egitasmoa: Nafarroako Margaritak 1559an idatzi *Heptameron*a euskaratzen ari dira, gero sarean dohainik zabaltzeko. Obra hori sortu zuen Margaritak, Boccaccioren *Decameron*aren ereduaren ildotik: bidaia batzuk Cauterets Pirinioetako komentu batean kokatuak daude, ekaitz azkar batengatik, horrek komunikabideak hautsi dituelako. Pertsonaiek beha egon behar dute zubi bat berriz eraikia izan dadin, eta denbora pasa, bi mezaren artean, istorioak kontatzen dizkiote bat besteari. Adin ezberdinetako ibiltariak dira, gizonak eta emazteak, eta helburutzat hartzen dute kontakizun atsegin eta dibertigarriak asmatzea. Orotara, 72 ipuin dira horrela irakurgai *Heptameron*a obran, zazpi egunetan banatuak, eta idazleak bururatu gabe utzi zuen bere lana.

Nafarroako Margarita hori François I. Frantziako erregearen arreba zen, Nafarroako Henrike II.aren espos laguna. Bi seme-alaba izan zituen: Nafarroako erregina bihurtu zen Albreteko Joana

eta Nafarroa eta Frantziako errege izan zen Henrike IV.a. Emazte jakintsu eta fina izan zen, mezenas ospetsua. Idazki berritzaileak ontu zituzten idazleak babestu zituen, hala nola Rabelais edo Bonaventure des Périers.

Nafar Ate-neoa eta Booktegiren proiektua berriki ezagutu dugun etxe zokoratze momentuan agertu zen. Obraren egun bat argitaratu nahiko lukete urtean. Lehen eguneko istorioak aurkeztu zituzten 2021eko urrian, Iruñeko Kontestablean; bigarren egunekoak, berriz, Amaiurren entzungai izanen dira osoki heldu den urriaren 29an. Edozoinen izena eman dezake irakurraldian parte hartzeko.

Sinbolo ederra da Amaiurreko guduaren 500. urteurrenaren kari antolatzeari ekitaldia. Baina *Heptameron*aren euskarazko itzulpen horrek merezi du klasikoaren berreskuratze plan orokorra batean hartzea leku. Ez euskaldunok kontzientzia moral bati obeditzeko, baina lehenagoko estetika gozatuz argituago bilakatzeko. Irakur, bada, bat bestearen ondok itxepararen *Emazten fabore* eta Margaritak adierazten duena emaztearen kondizioaz aro "humanistan". Bi gogoeta baliteke hor egiteko, testuak ongi erkatuz... ●



INMA ERREA CLEIX
IDAZLEA EDO

Ekolo

Aldizkari honetarako idatzi nuen lehen artikuluaekin (*Garai modernoak*, 2004) egin dut topo, eta harritu nau gaurkotasanak. Hemezortzi urte pasa eta gero, gai berberekin gabiltza atzera eta aurrera: orduan nonahi hazten hasiak ziren haize-errotak (jarraitu zuten ugaltzen, eta orain Nafarroan, adibidez, energia-iturri nagusietako bat dira), hiri-baratzeak (Arga ibaiaren ertzean zeuden batzuk desagerrarazi zituzten, baina orain beste batzuk eratu dituzte Argaren inguruetan zein beste hainbat tokitan), lur-irensle aseezinak diren eraikuntzak (halakoek orain ere bere erara aurrera)...

Ez naiz ausartzen esaten noraino zegoen hedatua orain dela bi hamarkada mugimendu ekologista –nago ordurako aski ezaguna zela Euskal Herrian, baina jarraitzen zuen joera alternatiboa izaten, hippyen kontua oraindik–, baina seguru nago ohitura eta jokamolde ekologistak ez zeudela boladan orain bezala, ez zirela oraindik nagusi. Azken urteetan jende asko di-da iragan baita “ekologista horiek” esatetik elikagai “ekologikoak” kontsumitzera.

Ez dut izan nahi ironikoa, serio hartzen ditut kontu hauek, eta pozten naiz ikus-tean gero eta jende gehiagok hartzen duela kontzientzia ekologiararen beharraz. Gero eta jende gehiago sentitzen dela “ekolo”.

Ohartzen naiz, bestalde, praktika ekologisten hedapenak gero eta kontraesan gehiago ekartzen dituela, eta konplexuagoak. Adibidez, elikagai ekologikoak ekoizpen-, banaketa- eta merkataritza-sare handietan sartu izanak baditu alde ilunak eta zalantzarriak. Eta haize-errotak erraldoi horiek energia berriztagarria sortzen dute, baina eragin kaltegarria ere badute paisaian, faunan, eta oro har ekosistemetan (gal-detu, bestela, Gironan errota itsasoan paratzearen kontra borroka bizian ari diren ekologistek). Zer esanik ez hondakinei buruz (bereizketak gora eginda ere, ez dago errefusa desagerrarazteko modu onik, eta salgaiak ekologikoak zein konbentzionalak izan, sarri dakartzate gehiegizko bilgarriak), edo garraiobideei buruz (auto elektrikoa da egiatan soluzioa?).

Guztiarekin ere, “ekoloenak edo” enpresa eta erakunde handiak dira orain, beti bezala denetan buruzagi (eta hone-tan bai, honetan ironia baliatu nahi dut). Arazo ekologiko larriak sortu dituzten horiek, urtetan eta urtetan ekologismoa-ren aldarriei entzungor eta itsu aritu di-renek –eta, are, erasokor ere– gidatuko gaituzte ekologiararen paradisa –betiere dirua lagun–. Gaitz erdi, zuzen egiten ba-dute (baina ez naiz fio). ●

Haurkeriak



ITXARO BORDA
IDAZLEA

Boterera heltzen diren politikarien ametsa *tabula rasa* egitearena ote da? Bazterrak, erakundeak, egiturak, elkartasunak, sindikatuak suntsitu eta desaktibatuz, gobernatzen den mundu horri reset bat eginarazi eta datozen milenarioentzat, makina berriz abiarazteko pretentsio argi eta garbia dute. Neoliberalismoaren zeregina da gaur egun, aurreko hamarkadetakoa ideologia mesianikoen ildotik edo hauen orde-z. Buruzagiek, garapenaren eta indar militarren ikurrak airean, batzuetan eskuin-muturrera plegatuz, Italian edo Hungarian bezala, zalantzan eman ezi-nezko autoritatea bermatu nahi dute.

Macron ere xenda horretatik doa. Ez da Frantzian, baitezpada erretreten erreforma baten premiarik, baina gizonak sakon sartua dauka buruan eta du-darik gabe, bideratuko du, batetik, pri-batizazioaren osteko diru-altxorren aiduru diren pentsio fondoan onerako eta bestetik, bere ustezko autoritatea erreforma horretan errotzen delako. Erran du duela gutxi: *“Ce qui se joue, c’est mon autorité”* (Nire autoritatea da jo-koan dagoena).

Urguilu hutsak sustatu boteretsuen haurkeriak garesti ordaintzen dituzte herritarrek, bereziki herritar zaurgarri-riek. ●

Ekotopaketak



IÑAKI BARCENA HINOJAL
EKOLOGISTAK MARTXAN
ETA EUSKAL GUNE
EKOSOZIALISTAKO KIDEA

Aurtengo irailari agurra eman genion "Sastraka" Portugaleteko gaztetxetik, toki okupatu aparta benetan, eta egia esan gure amets eta gogoak betetzen ari ziren. Zortzi hilabeteko prosezua ilusionagarri baten ostean fruituak heldu ziren. Ibaizabaleko ezker aldean 500 lagun bildu ginen eta aukera izan genuen solasaldi, txango, eztabaida, agerraldi, kantaldi edota bertso saioetan parte hartzeko. Asteburu osoan bertan otorduak prestatu eta lo egiteko aukera ere izan zen, jende piloaren lan-kolektiboari esker.

Erandion gas itogarrien aurka edo Belaguako esparru naturalaren defentsan, duela 50 urte baino gehiago hasitako euskal ekologisten ibilbideak 2022ko jardunaldi hauetan mugarri berri bat ezagutu du, oparoa dudarik gabe.

Ekin, saretu, eraiki. Eibarren urte hasierako bilerak hasi zirenean bildutako ekologisten asmoa argia zen. 2020 eta 2021eko neguetan antolatu ziren ALDAKETALDIAK, Bizkaian eta Gipuzkoan batez ere, bide eredugarria markatu zuen ekologisten ekimen bateratuetan aritzeko eta elkar ezagutzeko. Orain salto handiago bat egin behar zen Hegoalde osora zabalduz, eta EKOTO-PAKETAK antolatzeari ekin genion.

Batzuen ustez
euskal ekologismoa oso
barreiaturik dago, txoko
ugaritan atomizaturik,
eta muskulu bateratu
bat beharko luke krisi
ekosozialari irmoki
erantzuteko.

Beste batzuek, aldiz,
tokian tokiko erantzun
horietan ikusten dugu
dibertsitatearen indarra
eta erasoei erantzuteko
ahalmena

Prosezua horretan antolatzaileek arreta berezia jarri nahi izan dute Portugaleteko hitzorduan talde, kanpaina eta ekimen ekologista oro gonbidatuak egoteko, eta hiru eguneko programan

ahalegin berezia egin zen ahots eta aurpegi anitzak biltzeko, elkarren arteko ezagutza eta sareak bultzatzeko asmoz.

Batzuen ustez euskal ekologismoa oso barreiaturik dago, txoko ugaritan atomizaturik, talde txikietan, eta muskulu bateratu bat beharko luke krisi ekosozialari irmoki erantzuteko. Beste batzuek, aldiz, tokian tokiko erantzun horietan ikusten dugu dibertsitatearen indarra eta erasoei erantzuteko ahalmena. Hori bai, denek ikusten dugu elkarren artean saretzeko eta koordinatzeko beharra. Are gehiago, elkarrekin mobilizatu eta sareak tenkatuz gero, posible litzateke eragile berri bat martxan jartzea, abiatutako prosezua horren ondorioz.

Haziak. Urriaren 2ko igande goizeko asanbladan ehundik gora lagun batzartu ginen eta dinamizazio egoki bati esker banaka (paperetan), talde txikitan eta ertainetan edo borobil oso zabal batean, adin, sexu eta herrialde desberdinetik etorritakoek gure iritziak trukatzeko aukera izan genuen. Borobilean egonik, bakoitzari hazi eskukada bat banatu ziguten eta zirkuluka uraz zein eguzkiaz zaintzeko agindu genion elkarri. Euskal ekologismoaren garai berria dator. ●



urriak 22 - azaroak 10

Nafar hegoaldeko uztaz
euskarari puzka

**Bat egiteko
garaia da**



Eskatu saskiak eta lagundu horien balioaren %25arekin Nafarroa hegoalde eta erdialdeko euskalgintzari.

Babestu euskal kazetaritza independentea

Prezio
finkorik gabe.

Ordaindu
nahi duzuna.

Egin ARGIAkoa

www.argia.eus/eginargiakoa

Nafarroa hegoaldetik sortu da euskararen aldeko bultzada berria

Euskararen Foru Legeak nafarrak diskriminatzen ditu, eta hizkuntza eskubideak esleitzen zaizkie bizi diren eremuaren arabera. Bada, duela urte batzuk ereiten hasi ziren zonifikazioari aurre egiteko hamaika ekimen, eta udazken honetan inoiz baino indartsuago hasi dira euskarari puzka. Hordago, Errigora eta Agerraldiko kideekin hitz egin dugu euskararen aldeko uzta berriaz.

 LEIRE ARTOLA ARIN

Botere publikoek beharrezko diren neurriak hartuko dituzte hizkuntza dela-eta herritarrek diskriminaturik izan ez daitezen". Halaxe arautzen du Nafarroako Euskararen Foru Legeko 3.1 artikulua, baina errealitatea oso bestelakoa da. 1986an Nafarroako Parlamentuak onartu zuen "Ley del Vascuence" delako horrek berak diskriminatzen ditu nafarrak, bizi diren eremuaren arabera eskubide batzuk esleitzuz edo ukatuz. Nafarroa hiru eremutan zatitzen du: euskalduna, mistoa eta ez-euskalduna.

Zonifikazio horren ondorioz, Irurtzenen –eremu euskalduna– bizi den herritar bati eskubide batzuk aitortzen zaizkio, baina 20 minutu eskasera dagoen Iruñera –eremu mistoa– joanez gero,

eskubide horiek galtzen ditu; 10 minutu gehiagora dagoen Noainera –eremu ez-euskalduna– mugitzen bada, eskubide are gutxiago ditu. Nafarroako euskaldunek eta euskaltzaleek argi dute: zonifikazioak segregazioa eragiten du eta herritarren eskubideak urratzen ditu.

Ez da auzi berria Euskararen Legeari buruzkoa. Hainbat alditan saiatu dira Nafarroako Parlamentuak legea ezabatu dezan, eta ahalegin hori lehen lerroan jarri zen batik bat Aldaketaren Gobernuarekin [2015-2019ko agintaldian]. Ez da deuseztatu, baina legeak zenbait moldaketa izan ditu; azkena 2017an, non udalerri batzuk eremu ez-euskaldunetik eremu mistora pasa ziren, herritarren gehiengoak hala eskatu zuelako. Egun, 64 udalerri daude eremu euskaldunean,

98 mistoan eta 110 ez-euskaldunean. Hegoaldea edo Ager zonaldea deiturikoa da diskriminatuen dagoena, eta, aldi berean, zonifikazioari aurre egiteko gehien mobilizatu dena aspaldion.

Hordago herri ekimena 2021eko azaroan aurkeztu zuten, Corteseko adierazpenarekin, eta ordutik darama justizia eske: "Imajinatzen duzu nafarron lan-eskubideak edo hezkuntza-eskubideak edo osasun-eskubideak zonaka zatituta Nafarroan? Horrelako gairen batekin zonifikazioa egitea edozein nafar progressistarentzat onartezina izango zena, euskararekin eta nafarron hizkuntza-eskubideekin egin zuten", ohartarazten dute. Hamaika aldarrikapen eta borroka egin dituzte nafarrek azken lau hamarkadatan, Euskararen Legearen ginetik



Blanca García eta Ibai Sueskun. / DANI BLANCO.

euskaraz bizitzeko eskubidea defendatzeko. Bada, apurka-apurka indarrak batzen eta artikulatzen joan dira, eta Erriberan ereiten hasitako uzta zonalde guztietara barreiatzen ari dira. Udazken honetan lur lehorrak euskaraz bustitze-ko ekimen ugari antolatu dituzte Ager zonaldean.

HORDAGO, HANDIRA

Urriaren 22an Tuteran izan da euskaltzaleen elkargune, eta egun osoko egitaraua osatu dute Errigorak, Agerraldiak eta Hordagok elkarlanean. Goizean auzolanean aritu dira Ablitasen, urtero bezala, nafar ekoizleen uztarekin Errigorako saskiak osatzen; antolatzaileek azpimarratu dute “inoiz baino auzolangile gehiago” elkartu direla, eta horrekin hasiera eman diote udazkeneko kanpainari. Arratsaldean Erriberako hiriburuko kaleak hartu dituzte. Hordagok deituta-

ko manifestazioan. Tuterako plaza berritik abiatu da bertako nahiz ingurutik joandako jendetza, *Zonifikazioari hordago*. ¡Viva el euskera de Cortes a Bera! lelopean. Nafar guztien hizkuntza-eskubideak aldarrikatu dituzte, eta Nafarroako Gobernuari exijitu diote Euskararen Lege baztertzaila ezabatzeko. Norbanakoez gain, manifestazioa babestu dute hainbat gizarte eragilek, talde politikok eta sindikatuk.

Dena dela, ezin izan dute eguna nahi bezala borobildu: Agerraldiak antolatuta zuen Deskontrolen kontzertua atzeratu behar izan dute, Tuterako Udalak ezarritako oztopoak medio. Agerraldiko antolatzaileek salatu dute udalaren trabekin ez zegoela baldintzarik “kontzertu jendetsu, alai eta partehartzailea egiteko”. “Minduta bai baina ez diogu hau penatuta”, esanez udaberrirako iragarri dute kontzertua: “euskaltzaleon

ekimenez plazaratua eta euskararekiko fobiarik ez duten guztiei irekia” izango dela azpimarratu dute. Sei hilabete igaro dituzte baimenak eskuratzeko saiakerak eginez Navarra Sumako udal gobernua-ekin, baina ez du fruiturik eman. Gogorarazi behar dira 2021eko azaroan Alejandro Toquero alkateak prentsan egindako adierazpen polemikoak: “Hemen inork ez du hitz egiten euskaraz; ez da sekula egin”.


Horrelako jarrerak atzean uzteko eta “komunitatea egiteko” probestu dute urriaren 22a, Iraia De la Torre Hordagoko kideak azaldu digunez. Azagrakoa da De la Torre, eta nabarmendu du ez dela ohikoa Erriberan manifestazioak egitea, eta, beraz, jendetsua eta arrakastatsua izan dela; ideologietatik harago, argitu du Hordago eskubideen alde egiten duten talde anitza dela. Inflexio puntu gisa definitu du Tuterakoa, bai ekimenaren parte direnentzat, bai gainerako herritarrentzat: lortu dute Ager zonaldean ikusaraztea euskaldunak eta euskaltzaleak presente daudela eta gero eta gehiago direla; eta orain arte euskararekiko jarrerara pasiboa izan dutenei gaia gerturatu diete eta horri buruz pentsarazi, De la Torreren esanetan.

EUSKARAREN ALDE, GAZTELERAZ

Finean, zonalde diskriminatuko jendea mobilizatu nahi dute eta instituzioei presio soziala egin, euskara Nafarroa osoan ofiziala izan dadin. Dei hori behetik gorakoa izatea nahi dute, “zonalde zailenetatik goraino”, Ibai Sueskun Errigorako kideak eta Hordagoko partaideak esan digunez: “Hemen errealitate bat dago, euskaltzaleak badaude baina euskaldunak izatea gehiago kostatzen da. Beraz, goazen arrakala horiekin apurtzera; bat egiteko unea da. Zonifikazioa apurtzeko unea da, herritarrek bat egitekoa, mapa bat egitekoa, eta indarrak batzekoa”.

Sueskunek onartu digu eurek ere broma egin zutela leloa gazteleraz delako, baina horren zergatia azaldu digu Blanca Garciak, Agerraldiko eta Hordagoko kide tuterarrak: “Autokritika egin dugu, gure mezuak gazteleraz ere jartzeari buruz. Badaude euskaltzale batzuk euskara ez dakitenak eta ekintza askotan parte hartu ahalko luketenak. Euskararen normalizazioak aurrera egiteko beharrezkoa da aldeko jarrerak bultzatzea; gaztelerak Erriberan presentzia izan behar du, bestela asko mugatuko genuke gure publikoa, eta ez genituzke helburuak lortuko”.

Euskararen Legeak jartzen duen zonifikazioa





Urriaren 22an Tuteran egindako manifestazioa. IÑIGO URIZ / FOKU

HERRITARRAK AKTIBATUTA

Nafarroako zonalde diskriminatuan sortutako ekimenek hainbat helburu dituzte. Errigora, esaterako, 2013an sortu zuten euskarari bultzada emateko, besteren artean, eta saskiekin lortutako irabazien %25 euskalgintzari bideratzeko: 1,8 milioi euro banatu dizkiete AEKri, Sortzen Elkarteari, eta Ikastolen Elkarteari. Sueskunek zehaztu du haien lan egiteko modua: "Herritarrak batu nahi ditugu, beti oztopoen aurrean irribarrea jarrita, eta herri eraikuntza helburu dugula".

Blanca Garcia Agerraldiko kideak gogorarazi digu ikusi zutela ondo zegoela euskararen ezagutza bultzatzea, baina "pixka bat motz" geratzen zela. Horregatik sortu zuten Agerraldia, Errigoratik abiatuta, "herritarrei hitza emateko". Duela lau urte batu ziren Agerraldia ekimenean, eta ordutik zenbait jarduera antolatu dituzte: topaketak, jolastekak, euskara planak, Union Tuterako kirol talde euskaltzalea, eta abar. "Gure helduak ateratzen direnean alfabetatze eremu horietatik, zein aukera dituzte euskaraz aritzeko? Ez daukate aukerarik. Agerraldia horri erantzutera dator, nola erabili euskara gehiago, nola sustatu euskara gehiago, nola berreskuratu espazio ho-

*"Gero eta gehiago
gara ulertzen
dugunak euskara
gure eskubidea
dela, gure hizkuntza
izatek harago"*

riek... Zer saltsa eman euskarari bere bizitzaren eremu guztietan".

Azpimarratu dute orain "bat egiteko garaia" dela, euren leloari jarraiki, eta azken urteetako mugimendu berriak argi utzi duela euskara Nafarroan ofiziala izan dadin denok batera jorratu behar dutela lurra. Sueskunek hausnartu du askotan euskalgintza bakoitza bere bide-

tik doala, eta hori iraultzeko momentua dela: "Ekimenak bazeuden eta badaude, baina Errigorak edo Agerraldiak sortu izan dutena da ilusio pizte bat, esatea posible dela zerbait egitea. Eta horren haritik esaten zen: herritarrak aktibatu ditzakegu, baina era berean zergatik ez diogu beste buelta bat ematen zonifikazioaren istorioari". Horrelaxe piztu ziren ekimen hauek. Sueskunek gogorarazi du aurretik ere egin direla zonifikazioa amaitzeko saiakerak, baina "horrela seriozki ez". "Herritarrak aktibatu dira, batzuk lege aldaketa batzuk egiteko instituzioen bitartez, beste batzuk herritarrak aktibatze zonaldean, beste batzuk elkartasun ekimenekin -Nafarroa Oinez, adibidez-. Gero Errigora, gero Agerraldia, eta hortik sortutako ekimen desberdinak".

Iraia De la Torre ere indartsu ikusten du euskararen bultzada. "Gero eta gehiago gara ulertzen dugunak euskara gure eskubidea dela, gure hizkuntza izatek harago. Eta ulertzen dugu defendatu behar dugula ez bakarrik gure hizkuntza, baizik eta gure eskubidea. Gainera, ez dugu ikusten aldaketarik euskararen auzian. Indarra daukagu zeozer antolatzeko".

Hezkuntzan ere euskarak hamaika oztopo

LEIRE ARTOLA ARIN / MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Nafarroa hegoaldean eta erdialdean euskara loratzeko borrokan artean dago Ikastolen Elkartek aspaldi abiatutakoa. Bada, urtero bezala, aurtan ere Nafarroa Oinez festa antolatuta dute urriaren 16an. Tafalla –eremu mistoa– euskarak hartu du asteburu horretan, Garcés de los Fayos Ikastolako Paula Arregi zuzendariaren esanetan. "Egia da gure espektatibak oso altuak zirela, baina esango nuke gainditu direla. Izugarritzko jendetza hurbildu da herrira, eta Tafalla euskalduna ikusteko aukera izan dugu asteburuan".

Arregik jaialdiaren biharamunean airtortu digu proiektua aurrera eramanez ahal izan dutela familien lan bolondresari esker, eta ikastola komunitate gisa definitu zuen; mende erdia daramate haurrak euskalduntzen, eta hasieratik hona bilakaera izan dutela argitu digu. "Lehen Nafarroa Oinezetara milaka pertsona etortzen zen, eta gaur egun ez dira hain jendetsuak. Uste dut aldaketa handiena hori izan dela, pixka bat txikiagoa bihurtu da festa baina aldarrikatzeko beste modu batekin, indar handiagoarekin. Gaur egungo belarrialdia, gazte hauek, oso indartsu datoz, eta benetan lagundu nahi gaituzte gure proiektua aurrera eramaten".

Erdian erein leloa aukeratu dute festarako, eta Arregik onartu du fruitua eman duela hartutako lanak. "Ohorea" izan da Arregirentzat ardura hori izatea, eta nabarmendu du horrelako festak antolatzeak erakusten duela "bide onetik" doazela: "Ez naiz inoiz aspertuko esateaz ikastola gabe ez ginatekeela egongo orain gauden momentuan euskarari dagokionez. Bidea zaila da, zaila da euskaraz bizitzea Tafallan, baina bide egokian goaz, eta jarraitu behar dugu ereiten eta ereiten, zeren gero uzta jasotzen duzunean merezi baitu".

LARRAGAN D EREDU ESKE

Bestalde, eremu diskriminatuetako hainbat ikastetxe publiko lanean ari dira hezkuntza euskalduna lortzeko. 2015ean Euskararen Legeari egin zioten aldaketa bati esker, D eredua ireki daiteke Nafarroa osoko ikastetxe publiko guztietan, eskaeraren arabera, baina errealitatean oztopo ugari izan ohi dituzte. Horren adibide da Larragako –eremu ez-euskalduna– San Miguel ikastetxea.

A eta B eredua dituzte, eta gaur egun, euskarazko murgiltze ereduaren alde egiten dutenek bi aukera dituzte: edo herriko eskolan gelditu, baina D ereduan ikasteari muzin egin, edo D eredua ikastera Tafallako eskolara joan, herria utziz. Izan ere, Nafarroako eskola ma-

pak zehazten du D ereduan ikasi nahi duen Larragako ikasleak Tafallara joan behar duela.

Ikastetxeko guraso talde batek Nafarroako Gobernuari eskatu dio D ereduko lerro bat irekitzeko, baina erantzunaren zain daude.

Agurne Gaubeka Hizkuntz Eskubi-deen Behatokiko zuzendariak nabarmendu digu ez dela Larragako edo Mendigorriako arazoa, arazo orokorra baizik: "Gobernutik ez dago euskararen aldeko inolako eskaintza aktiborik, eta familiek eskatzen dutenean, dena da oztopo. Egoera horrek erabat baldintzatzen du euskarazko hezkuntza erdua, baina ikusten dugu behin D eredua ezartzen denean, gero eta gehiago direla horren alde egiten duten familiak".



Larragako guraso talde batek gobernuari eskatu dio D eredua ezartzeko. IÑIGO URIZ/ FOKU



TOPAKETAK, HAUSNARTZEKO

Bidea hasi besterik ez dela egin diote, eta asmoa dute Ager topaketetan datozen pausoak denon artean gogoetatzeko. Azaroaren 5ean jarri dute hitzordua Azkoienean, eta gogotsu daude, espero baitute inguruko jende andana biltzea. Hausnarketarako tartea izango da, ideiak komunean jartzekoa. Garciak argitu du herritarrek direla Errigoraren eta Agerraldiaren agenda markatu behar dutenak: "Gonbidapena egiten diegu herritarrei, etortzeko esatera zeintzuk diren haien beharrak". Garcia eta Sueskunek nahi dute izatea momentu bat jendea batzeko, eta ikusteko ea nola dauden eta ea zer egin behar duten aurretik: "Hori ez dugu guk erabaki behar, herriz herri erabaki behar dute, bakoitzaren beharrak ez direlako berberak".

Ideiak eta kritikak jasotzeko aldarkez doaz Azkoienera. Sueskunek azaldu du errealitate guztiak hartu behar direla kontuan. "Zonaldea oso-oso zabala da, Garestik Cortesera eta Zangozatik Vianara. Errealitateak oso desberdinak dira, errealitate baten baitan errealitate asko daude. Horiek guztiak batu nahi ditugu, eta ikusi zerk batzen gaituen. Euskarak batzen gaitu, bada, zer egin behar dugu ibilbide bera egiteko?". Euskara oinarri izatea nahi dute, baina transbertsalki lantzea: "Memoria historikoa, identitatea, feminismoa... eta beste balio eraldatzaile batzuk izatea ere".

Azaroaren 5ean egun osoz arituko dira euskararen bueltan. 10:10etan Age-

rreko euskal komunitatearen inguruko EHUREn ikerketa aurkeztuko dute, eta 10:40ean "Agerraldiaren uztia" hitzaldia izango da. Jarraian gogoeta taldeetan bilduko dira, eta 13:30ean emango diote amaiera goizeko tarteari. Elkarrekin bazkaldu ostean, aisialdirako tartea zabalduko dute, iluntzera arte: Ojos Violeta, Pirritx, Porrotx eta Marimotots, pilota partida, eta Tatxers, Skabidean, Odolkiak ordainetan eta Neskatasuna taldeen kontzertuak izango dira. Egun emankorra izatea espero dute antolatzaileek.

NAFARROA BAT EGITEKO, BAT EGIN

Tuterako manifestazioan Erriberako eta Erdialdeko herritarrek izan ziren protagonista, alkateari "Toquero, entzun, Tuterak euskaldun" esaldien gisakoak ohikatu, baina Sueskunek ohartarazi du nafar ororen borroka izan behar dela zonifikazioari aurre egitearena. "Argi dago nafar guztiok mugitu behar garela, nafar guztiok eskubide berberak izatea lortu nahi badugu".

Mugimendua hasi, hasita dago, eta ez nolanahikoa. Ager topaketek aukera emango dute euskaltzaleen indarrak eta gogoak neurtzeko, eta bidea segitzeko abiapuntua izango dela aurreikusi dute. ARGIArekin hitz egin duten ekimenetako kideek argi dute euskarak hamaika alor dituela lantzeko, eta borroka ertz desberdinetatik bideratu behar dela. Sueskun-

esetan, eragile bakoitzak du bere funtzioa: "Desberdina da Hordagok egin dezakeena, desberdina da Agerraldiak edo Errigorak egin dezaketena; guztiak dira ezinbestekoak. Baina zonifikazioa amaitzeak ez du esan nahi euskara berreskuratzeko dugunik". Bide luzea aurreikusten dute, alegia. "Nahiz eta ofiziala izan eremu guztian, ehundaka eta ehundaka urte ditugu atzean non euskarari kristoren mina eman zaion. Hori aldatu behar da: ohiturak, kultura, gauza asko. Administrazio boki aldaketak egoten badira asko lagunduko du, baina ez du herrialdea euskalduntzea ekarriko".

Sueskunek bi aldeetan lanari ematen dio garrantzia, herritarrei eta instituzioei: "Herrialdea euskalduntzeko herritarrek kontzientzia hartu behar dugu eta instituzioek laguntza eman behar dute". Iritzi berekoa da De la Torre, uste baitu legea aldatzeak ekarriko lukeela zonalde diskriminatuko herritarrek sentitzea euskara euren ere badela: "Legeak eragiten du sorgin-gurpila, zeren sentitzen dut euskara ez dela nirea, ezin dut euskara ikasi, beraz, ez dut hitz egiten... Euskararekiko sentimendua eta ikuspuntua aldatu behar dira, eta agintariak horretarako jarrera positiboa izan behar dute".

Sueskunek bota die hordagoa instituzioei: "Ez dugu ez gutxiago ez gehiago eskatzen, baizik eta euskarari gatzelerari ematen zaion garrantzia ematea, kendu digutena berreskuratzea". ●

BABESLEA:



HIZKUNTZA

berean hitz egiten dugu

ORKLIN, konfortaren eta pertsonen segurtasunerako souzioetan munduko liderra izanik, hizkuntza berean hitz egiten dugu. Konpromiso sozialaren, zintotasunaren, talde-lanaren, aniztasunaren eta iraunkortasunaren hizkuntzan aritzen gara... eta gainera euskaraz.

"Funtsezkoa ikusezina da begientzat"
Antoine de Saint-Exupéry



ERREKALEORREKO AZTARNA ENERGETIKOA

***Komunitatea,** energia kontsumoa murrizteko akuilu*

Kontsumismoa da gaur egungo “-ismo” garrantzitsuenetakoa. Hain errotua dugu, ezen produktu askoren kontsumo mugagabeak baliabide krisi batera zuzendu baitu gure gizartea. Era berean, ekoizpenari loturiko eredu energetikoa kinka larrian dago, energia baliabideak eskuratzeko gerrak izateraino. Gizarte gisa aurrera egiten jarraitzeko, ezinbestekoa da Iparralde Globaleko herrialdeen energia kontsumoa murriztea. Nola lor liteke hori? EHUko Ekopol eta Life Cycle Thinking Group taldeetako kideok ikerketa burutu dugu Gasteizko Errekaleor auzo askean. Jabetu gara bizimodu alternatibo eta komunitarioak energia kontsumoa murriztu dezakeela, ondasun eta zerbitzuak ekoizteko erabilitako energiaren garrantzia dela-eta.

 ESTITXU VILLAMOR LOMAS, ORTZÍ AKIZU GARDOKI

Nazioarteko Energia Agentziaren (IEA) datuen arabera, 2018an munduko biztanle bakoitzak batez beste kontsumituriko energia primarioa 21,8 MWh-koa izan zen. Alabaina, Leeds-eko Unibertsitateko ikerketa baten arabera, Lur planetarengandik era jasangarrian eskura daitekeen energiaren muga ez gainditzeko, kontsumoa gutxienez erdira jaitsi beharra dago: biztanle eta urteko 10,8 MWh-ra. Zentzu horretan, energiaren erabilera murrizten ari garen

egiaztatzeko adierazle egokiak behar dira. Orokorrean, herrialde baten energia kontsumoa neurtzerakoan, “energia primarioaren hornidura osoa” adierazleak erabiltzen da. IEAk eskaintzen duen datua da, herrialde baten barruan (etxebizitzetan, garraioan, industrian eta zerbitzuetan) ematen den energiaren gutzitiko kontsumoa kontabilizatzen duena.

Adierazle horrek, baina, ez ditu aintzat hartzen ezkutuko energia-fluxuak, alegia, beste herrialde batzuetatik inportaturiko produktu eta zerbitzuak ekoiz-

teko erabiltzen den energia. Ondasun eta zerbitzuak, oro har, Hegoalde Globaleko herrialdeetan ekoiztu eta Ipar Globalekoetan kontsumitzen direnez, ezkutuko energia-fluxuak kontuan hartzen ez badira, ematen du herrialde batzuetako (oro har, Ipar Globaleko) energia kontsumoa berez dena baino txikiagoa dela. Eta alderantziz, Hegoalde Globaleko herrialdeek benetan baino energia gehiago kontsumitzen dutela, kontsumo horren zati handi bat, errealtatean, Iparralde Globaleko herrialdeetara bideratutako produktuak ekoizteko erabiltzen denean.

Horrela beraz, “energia aztarna” deritzon adierazleak herrialde bakoitzari esleitu behar zaion energia primario osoaz gain, ezkutuko energia-fluxuak ere hartzen ditu kontuan. Ikerketan, EAEko eta Errekaleor auzo askeko aztarna energetikoa kalkulatu da, adierazle horretan eragiten duten faktoreak argitzeko asmoz.

Gasteizko periferian dagoen auzo okupatua da Errekaleor. 100 pertsona inguru bizi dira bertan, autogestioan eta asanblearismoan oinarrituriko proiektua elikatuz. 2017an, Gasteizko Udalaren aginduz eta indar polizialek lagundurik, Iberdrola enpresak auzo osoa argindarrik gabe utzi zuen. 2018tik aurrera, orde, auzoa elektrikoki burujabea da, auzokideek adituen laguntzaz eta herriarrek babesturiko *crowdfunding* kanpainari esker martxan jarritako sistema

fotovoltaikoa dela medio. Orduetik, Euskal Herriko irla energetiko handienak argitzen du Errekaleor auzoa.

Auzo askeko aztarna energetikoa kalkulatzeko, etxebizitza eta autoetan ematen den energia kontsumoa (edo energia kontsumo zuzena) biltzeaz gain, 40 auzokideren 2019ko gastu ekonomikoak jaso genituen, produktu eta zerbitzuei loturiko energia kontsumoa (edo zeharkako kontsumoa) kalkulatzeko asmoz. Garai hartan 116 pertsonen hartzen zuten parte proiektuan eta hiru etxebizitza motatan zeuden banatuta: 4-10 pertsona bloke oso bat okupatzen, "komunitate" deitu ditugunak; 2-3 pertsona etxebizitza batean, "familia" (ez-nuklearra) deritzotenak; eta pertsona bakarra etxebizitza bat okupatzen, "norbanakoak".

KONTSUMO ZUZENA, HANDIAGOA

Emaitzak modu egokian ulertzeko, komeni da energia kontsumo zuzena –etxebizitzetan zein ibilgailu pribatueta ematen dena– eta zeharkakoa –produktu eta zerbitzuetan txertaturikoa– bereiztea.

Izan ere, aipatzekoa da Errekaleorreko energia kontsumo zuzena EAEkoa eta Espainiako Estatukoa baino altuagoa dela. Auzoko biztanle baten aztarna energetiko osotik, ibilgailu pribatueta baliatutako erregaiak %19 suposatzen du. Batez beste, Errekaleorreko bizilagun batek 6 MWh kontsumitzen ditu urtean autoetan, Espainiako Estatuko heritarrek baino gehiago. Era berean, harrigarria gerta daitekeen arren, Errekaleorreko etxebizitzetako energia kontsumoa Espainiako Estatukoa eta EAEkoa baino handiagoa da, %20 eta %45 gehiago hurrenez hurren. Pertsona batek 4,5 MWh kontsumitzen ditu batez beste urtean; aztarna energetiko osoaren %14 da hori. Horren arrazoiak dira etxebizitzetan isolamendu eskasa eta berokuntza sistema ez efizienteak. Halaber, etxebizitzetan kontsumitzen diren energia iturriak desberdinak dira. Espainiako Estatuan eta EAEn nagusiki elektrizitatea eta gas naturala baliatzen diren bitartean, Errekaleorren egurra da gehien erabiltzen dena (kontsumoaren %82), etxebizitzak berotzeko


beharrezkoa baita. Egurraren ostean butanoa dago (%13), hirugarrenik sistema fotovoltaikoak (%4), eta azkenik larrialdietarako diesel bidezko sorgailua (%1).

Errekaleorreko etxebizitzetako energia kontsumoaren %86 jatorri berriztagarrietatik dator beraz. Beren sor-kuntza, gainera, deszentralizatua da, eta Espainiako Estatuko zein EAEko elektrizitate eta gas azpiegitura handiek dituzten transformazio eta garraio galerak saihesten dira horrela. Baina, berriztagarria izanagatik, EAEko biztanle guztiek Errekaleorreko auzokideek bezainbeste egur kontsumituko balute, erkidegoko basoen gaitasuna gutxienez %10ean gaindituko litzateke.

Gauzak horrela, aztarna energetiko osoaren gaineko ehunekoak aintzat hartuta –garraiobideetan %19 eta etxebizitzetan %14–, %33 ingurukoa da energiaren zuzeneko kontsumoa. Hortaz, zeharkakoa da %66 inguru; hura aintzat hartuta aztarna energetikoa txikiagoa da Errekaleorren, EAEn eta Espainiako Estatuan baino.

Herriarrek babestutako 'crowdfunding' kanpainari esker jarri dute sistema fotovoltaikoa Errekaleorren.





AUTOGESTIOA

Aztarna energetiko totalari erreparatzen badiogu, Errekaleorreko aztarna energetikoa (batez beste, biztanleko eta urteko 31,10 MWh) da hiruetan baxuena. Produktu eta zerbitzuetan txertaturik dagoen energia kontsumoari zor zaio hori. Espainiako Estatuan aztarna energetiko osoaren %81 da, EAEn %75 eta Errekaleorren %66. Horrek erakusten du pertsona bakoitzaren kontsumo materialaren atzean daudela aztarna energetikoa baldintzatzen duten faktore nagusiak. Auzo askeko biztanleek antikapitalismoa eta autogestioa aldarrikatzen dituzte, baita praktikan jarri ere: jatekoa produzitzea edo birziklatzea, arropa eta bestelako produktuak konpontzea, doako dendak erabiltzea edota bertako ekoizleei erostea bezalako ohiturek nabarmen murrizten dute aztarna energetikoa, EAE eta bereziki Espainiako Estatuak erakusten dituzten kopuruen azpitik.

KOMUNITATEAN, BAKARRIK BAINO AZTARNA TXIKIAGOA

Azkenik, etxebizitza motaren arabera energia aztarna nabarmenki aldatzen dela ikusi da. Bakarrik bizi diren norbanakoek (42,79 MWh) komunitatean (28,84 MWh) edo familian (28,45 MWh)

*Jatekoa ekoiztea,
birziklapena, arropak
eta bestelakoak
konpontzea, doako
dendak... aztarna
energetikoa murrizten
duten faktoreak dira*

bizi diren pertsonen baino aztarna energetiko handiagoa uzten dute. Azken bi multzoetako bizilagunak dira Errekaleorreko aztarna energetikoa jaistea lortzen dutenak, bizitza komunitarioak energia kontsumo totala murriztu dezakeela erakutsiz. Are gehiago, bakarrik bizi diren norbanakoek, batez beste, EAEko biztanleek baino aztarna energetiko altuagoa dute.


Hirugarren grafikoa ageri den moduan, norbanakoen aztarna energetikoa kontsumo sektore guztietan da altuagoa, garraio publikoan ("Garraio zerbitzuak"

deiturikoa) izan ezik. Garraio pribatua ("Garraio pribatua" eta "Garraio ekipamenduak" sektoreak), "Zerbitzuak", "Etxebizitza" eta "Eraikuntza, mantenimendu eta konponketak" eremuetan bereziki altuagoa da.

Azken bi sektoreetako aztarnaren kasuan, bakarrik bizitzaren ondorio zuzena da, energia kopuru bera erabili behar delako etxebizitza bat konpondu edota berotzeko, bertan zenbat lagun bizi diren kontuan izan gabe. Aldiz, gainerako sektore guztietan, norbanakoen aztarna energetiko altua euren bizi estiloa barnebiltzen duten erabaki pribatuei egoten diegu (auto bat erostea eta erabiltzea, esaterako). Kasu gehienetan norbanako hauek pertsona gazteak dira, familiari loturiko zaintza lanik gabekoak eta berriki lan merkatuan sartu direnak, haien eroste ahalmena azken urteotan handitu delarik.

KONTSUMOA MURRIZTEA, EZINBESTEKOAK

Ikerketa honen zioetako bat EAEko gizartearen kontsumo maila altuaz jabetzea litzateke, bertako biztanleen batez besteko aztarna energetikoa (40,9 MWh pertsona eta urteko) munduko kontsumoaren (21,8 MWh) bikoitza baita; planeta jasagarria izateko lortu beharreko



kontsumoaren (10,8 MWh) laukoitza, hain zuzen ere.

Komunitatean eta autogestioan oinarrituriko bizi estiloak Errekaleorreko biztanleen batez besteko azterna energetikoa (31,1 MWh) murriztea ahalbidetu du. Halere, gehiago murriztu beharra legoke jasangarritasunaren mugak ez gaintzeko. Izan ere, gizartearen kultura kontsumista zein kapitalismoaren egiturazko baldintzak dira norbanakoen bizi ohituretan eragile nagusiak. Errekaleorreko biztanleek, EAEko eredu ekonomikoaren baitan bizi diren bitartean, nekez lortuko dute energiaren paradig-

ma iraultzea. Halere, hautu indibidualek eragina izan badutela agerian utzi du ikerketa honek, bakarrik bizi diren norbanakoen azterna energetiko altuari erreparatuta jabetuko garenez.

Bestalde, oso aipagarria da Errekaleor auzoa argindarrez hornitu eta auzo askea Euskal Herriko trantsizio energetikoaren ikur bilakatu duen instalazio fotovoltaikoak Errekaleorreko etxebizitzetako energia kontsumoaren %4 asetzen duela, biztanle bakoitzaren azterna energetikoaren %0,6 baino ez. Horretaz jabetzeak agerian uzten du zeinen urriak diren etxebizitzetako kontsumoan eragitea

helburu duten trantsizio energetikoaren aldeko politika publikoak. Halere, aipaturiko instalazioak auzokideen bizi ohituretan eragin zuzena du, etxebizitzetako argindarra bezalako oinarritzko zerbitzu bat eskaintzen baitie. Era berean, etxebizitzetako argindar eta berokuntza sistema deszentralizatuek energia enpresa handiekiko independenteago bihurtzen dute auzo askea, eta ziurrenik prestatuago dago datorren krisiari aurre egiteko.

Errekaleor Bizirik! moduko proiektu eraldatzaileek berezko ezaugarriak dituzte, eta horrek zaildu egiten du eredu beste leku batzuetan txertatzea. Egia da azterna energetikoan eragina duten faktore batzuk lurraldeari lotuta daudela –etxeetako berokuntza sistemak, eguzki plakak edota baratzea, esaterako–, eta proposatzen diren neurriek, oro har, horietako batzuk dituzte helburu. Baina arestian aipatu bezala, argi ikusi dugu azterna energetikoaren zatirik handiena produktuko eta zerbitzuetan txertaturiko ezkutuko energia-fluxuari dagokiola.

Kontsumo ohiturei lotuta dago hori, eta potentzialki, EAEko biztanle guztiek euren azterna energetikoa murrizteko hor eragin beharra dago. Finean, badakigu ez dagoela egungo eredu ekonomiko eta energetikoa eraldatzeko errezeta magikorik, baina guztion artean eraiki behar dugun mundu desiragarri horretarantzko mapan, Errekaleorreko auzokideak bide posible bat marrazten ari dira. Bide luze bat, oraindik asko baitago egiteko. ●

Erreportaje hau EHuko Ekopol eta Life Cycle Thinking Group ikerketa taldeek *Sustainable Production and Consumption* aldizkari zientifikokoan argitaraturiko lanean oinarritua dago. Lan osoa hemen dago eskuragarri: <https://doi.org/10.1016/j.spc.2022.09.003>

TRADEBI
TRANSLATION

tradebi@tradebi.com

“ ”

Ikuspegi nagusia oso sinple bilakatu da Errusian: gu onak gara eta haiek gaiztoak

Garai interesgarriak bizitzen ari gara Errusian, zalantzarik gabe. Azken hilabeteotan mintzagai nagusi bihurtu den Ukrainako gerrak espazio txikia uzten die bizitzako gainerako aspektuei. Moskun bertan, Pavel elkarrizketatu dugu ARGIArako. Izena faltsua da, hark hala eskatuta, baita elkarrizketatzailearena ere, Errusian hainbat urtetako kartzela zigorra jaso baitezake gerraren aurka publikoki hitz egiten duenak. Gizon gaztea da Pavel deituko duguna, 25 urte ditu. Moskukoa da eta, oraingoz, bertan jarraitzen du. Unibertsitatean hizkuntzalaritza ikasi zuen, gaztelania eta ingelesarekin. Hiru urte daramatza lanean hiriburuan, atzerriko erakunde batentzat.

 VASILISA PETROVNA

Hasteko, nolako harremana duzu Ukrainarekin?

Ukraina nire bigarren herrialdea da, batez ere Ukraina ekialdea. Nire aitona-amonak guztiak han bizi izan dira, Mariupol hirian, eta aita eta izeba (amaren ahizpa) ere bai. Horregatik, 2014 urtera arte udaro joaten nintzen Mariupolera. 2006an urtebete egin nuen han, orain ia suntsituta dagoen auzo-eskola batean ikasten. Nire lau aitona-amonetatik hiruk, zorionez edo zoritxarrez, ez dute ikusi hirian eta herrialdean gertatu den izugarrikeria, duela urte batzuk hil bai-

tziren. Amaren amak soilik, bizirik dagoen bakarrak, hirian bizitzen jarraitu du, eta izebak eta aitak ere bai. Hantxe egon ziren hirian batailarik basatienak gertatu zirenean ere.

Nola aldatu da zure bizitza aurtengo otsailaren 24az geroztik? Nola sentitzen zara orain Moskun bizi zarela?

Zoritxarrez, inoiz ezin izango dut otsailaren 24a ahaztu. Ordutik nire bizitza hainbatetan aldatu da, okerrera beti, etengabe. Egun hartan lagun baten wha-

tsapp mezuak esnatu ninduen, jakin baitzekien nire familiaren zati bat Mariupolekoa zela. Zera esan zidan: "Kaixo! Ikusi dituzu albisteak?". Ez nion erantzun, ez nuelako jakin zer erantzun. Garai hartan ezin nuen ezer ulertu, erabat galduta ibili nintzen. Hilaren 24a baino lehen, zurrumurruek zeuden alde guztietatik, gerra laster hasiko zela, baina niretzat –eta lagun eta senide guztietzat– fake news hutsa baino ez ziren. Ez zuten arretarik merezi; baina azkenerako, dirudienez bai, merezi zuten.

Egun horretan, amak eta biok Mariupolgo familiari deitu genion handik atera zitezen erregutzeko. "Oraingoz ez da posible, hiria blokeatuta dago, baina seguruenik ez du askorik iraungo", esan zuen izebak. Handik bi egunera, harremana guztiz galdu genuen. Erabat izututa eman genituen ia bi hilabete amak, arrebak eta hirurok. Komunikabide guztiak jarraitzen genituen, bai ukrainar nazionalistak, bai Errusiako Gobernuaren aldekoak, gure senideei buruzko edozein informazio aurkitu asmoz. Aurpegi eza-gunak aurkitzeko itxaropenarekin, gau eta egun ibili ginen suntsitutako hiriaren argazkiak ikusten, jendea ebakuatzen ari ziren soldatuen bideoei behatzen, orduro eguneratzen ziren ebakuatuen eta hildakoen zerrendak irakurtzen. Apirilaren amaierarako, izebak amari deitu zion, azkenean. Gorriak ikusi zituzten, baina handik ihes egitea eta guregana,



Irailako deialdian gudara mobilizatutako hainbat herritar.

Moskura, iristea lortu zuten. Zeukaten aukera bakarra zen.

Nola bizi duzu egoera?

Nire aldetik, ez dut inoiz ulertu edozein eraso mota erabiltzeko beharra. Beti sinestu izan dut elkarrizketaren, diplomaziaren eta negoziazioen indarrean. Gerraren aurka nago eta inoiz ezin izan dut errugabeak hiltzea babestu, batez ere nire haurtzaroko hiriari, nire familiari eta nire lagunei eragiten dienean.

Lehen ez zitzaidan gogaikarria egiten Errusian bizitzea. Herrialde arrunta zen niretzat, bere abantaila eta desabantailekin, gustuko nituen eta onartzen ez nituen gauzekin. Bazirudien nolabaiteko oreka zegoela ongiaren eta gaizkiaren artean. Banuen Europara bidaiatzeko aukera, lagun atzerritarrek ikustekoa, eta haiek ere bisitan etor zitezkeen. Baina orain trizionatuta sentitzen naiz, eta oso minduta; abandonatuta sentitzen naiz. Nire herrialdeak ez du nire iritzia onartzen, nire iritzia ozen adierazteagatik isunak jaso edo espetxeratu izateko arriskua dut. Munduak nire nazionalitateagatik gorroto nau. Ukrainako ezagun batzuek heriotza

opa didate arrazoi berberetatik. Lagunak ditut salbazio bakarra, eta gutxi gelditu dira hemen, gehienek herrialdetik alde egin baitute. Nire hiria askoz ere hotzagoa da orain, askoz itxiagoa, arrotzagoa.

Nola bizi duzu Putinek irailaren 21ean agindutako mobilizazio partzialerako deia? Pertsonalki eragin al dizu? Nola aldatu da Errusia horren ondorioz?

Mobilizazio partziala ere kolpe gogorra izan da herritarrentzat, gobernuaren aldetik. Dirudienez, Mendebaldearen zigorrekin nahikoa ez eta, gainera, gure Gobernuak ere min eman behar digu. Jende kopuru izugarria joan da hementik, batzuek herrialdetik ihes egin dutelako, beste batzuk mobilizatuak izan direlako. Batez ere metroan nabaritzen dut, orain leku gehiago dago, bidaiari gutxiago dagoelako.


Zorionez, beste batzuek baino hobeto bizi dut egoera. Lehenengo mobilizazioaldia –oraingoa– ez zait egokitzen, ez baitut soldadutzarik egin eta ez dut esperientzia militarrik –bizitza osoan ikasle izan naizelako–. Baina edozein unetan

egokitu ahal zait, eta ez naiz harrituko. Egoera honetan, jada ez nau ia ezerk harritzen, utzi diot zerbait ona iristeko zain egoteari.

Errusiako jendeari dagokionez, aldarrikapen nazionalista gutxiago entzuten dut orain. Orain ez dut inor ikusten Z letradun kamiseta edo txanoekin kalean harro-harro ibiltzen. Ez dakit zergatik den hori, agian nazionalista guztiak gerrara joan direlako (ez dut uste), edo bat-batean iritzia aldatu dutelako eta orain isil-isilik daudelako.

Nola ikusten duzue Putinen gobernu gaur egun? Nola eragiten dute komunikabideek ikuspegi horretan?

Nik ez dut nire belaunaldiaren bozera-maile izateko eskubiderik, bakoitzak oso ezberdin bizi duelako egoera. Nire lagunak eta ni hiriburuan bizi gara, eta hiri hau Errusiako beste batzuk baino pixka bat "europarragoa" eta liberalagoa da. Guztiok jaso dugu goi-mailako hezkuntza eta nolabaiteko egonkortasun ekonomikoa dugu gure familietan. Inoiz ez dugu bereziki babestu Errusiako presidentea, nahiz eta onar dezakegun gauza



Moskuko Plaza Gorria.



Produktu militarrek saltzen dituen denda baten sarrera, Defentsa Ministerioaren atzeko aldean.

on batzuk egin dituela. Bai, batzuk bai. Baina orain ez dut argi-izpirik ikusten haren gobernuan, ez dago ezer onik. Ez dut babesten eta ez dut babestuko. Oro har, nire inguruko jendeak ere horrela pentsatzen du.

Komunikabideen eraginari dagokionez, propaganda bortitza besterik ez da, beste ikuspegi batzuk onartzen ez dituen. Gaur egungo ikuspegi nagusia oso sinplea bilakatu da, zuria ala beltza soilik, ñabardurarik gabe: gu onak gara eta haiek gaiztoak; guk babestu eta salbatu egiten dugu, haiek hil eta suntsitu; Errusian jarraitzen dutenak heroiak eta patriotak dira, ihes egiten dutenak traidoreak eta koldarrak, eta abar. Okerrena da bada goela hori sinesten duen jendea, eta tamalez, ez dira milaka batzuk, milioiak baizik.

Zer iruditzen zaizu Donetsk, Luhansk, Kherson eta Zaporizhia Errusiari atxikitzea? Zer iruditu zitzaizun Plaza Gorrian lurralde horien anexioa ospatzeko egin zen jaialdia?

Lau lurralde horietatik Donetskeko Herri Errepublikan egon naiz soilik, eta egia da bertako jendeak errusieraz egiten duela beti hitz eta errusiar sentitzen dela odolagatik, ez pasaporteagatik. Beraz, nire ustez, bertako biztanleek beren lurraldearen patua aldatu nahi badute, esku-bidea dute, betiere modu baketsuan egin ez gero, elkarriketa eta negoziazioaren bidez. Irrealegia eta baikorregia dirudi, badakit. Hala ere, esango nuke antolatutako berri diren erreferendumez ez dutela zerikusirik bertako biztanleen nahiarekin,

“ ”

***Mobilizazio partziala
ere kolpe gogorra izan
da herritarrentzat.***

***Jende kopuru
izugarria joan da
hemendik, batzuek
herrialdetik ihes egin
dutelako, beste batzuk
mobilizatuak
izan direlako***

pertsona bakar baten nahiarekin baizik. Gainera, herrialde bati eskualde berriak atxikitzen bazaizkio, ez al litzateke logikoa herrialde horretako biztanleei ere galdetzea?

Helburuak oso desberdinak izan daitezke. Ni ez naiz ez politologoa, ez diplomatikoa, pisuzko iritzia eman ahal izateko. Batzuek diote "Errusiaren subiranotasuna babesteko" egin dela; beste batzuek, aldiz, "errusiar biztanle zapalduak babesteko"; eta hirugarrenek diote "Errusiaren muga historikoak berrezartzeko" izan dela. Denetariko iritziak daude. Iritzi zentzugabeak, nire ustez.


Gauza bera gertatu zen 2014an, Krimia "etxera itzuli" eta gero. Lau eskualdeak Errusiari atxiki zitzaizkion egunean, Moskuko erdigunearen ia erdia itxi zuten ospakizunak antolatzeko. Gogoan dut, lanetik metroan itzultzen ari nintzela, seguruenik ekimen horietara zihoan emakume bat ikusi nuela jendearen artean, eskuetan bandera errusiarra zeramalaiko (oro har, errusiarrok ez dugu eskuan bandera eramaten). Gogoan dut haren begirada, emakume nekatuaren begirada; ematen zuen ez zuela leku hartara joan nahi, barrena ausikita zuela. Mundu guztiak daki ekitaldi horietako parte-hartzaileen %90 funtzionario publikoak direla eta behartuta daudela horrelakoetara joatera, beren lana mantendu nahi badute, behinik behin. Bitartean, "jendarte inoiz baino elkartuago" dagoela oihukatzen dute agertokitik.

Zer iritzi duzu Zelenskiren gobernuak Mendebaldearekin duen harremanaz? Sinesgarri jotzen dituzu Putinen adierazpenak, Zelenskiren kabineteak Ukrainako ultra-eskuineko taldeekin duen harreman estuaz?

Zelenski jauna etsita dagoela iruditzen zait. Bai, bere herrialdea gerran dago eta dena egin behar da herritarrak babesteko, baina ez dut uste jasotzen duen ekipamendu eta diru hori guztia doan jasotzen duenik. Uneren batean, Ukrainak ordaindu egin beharko du, eta auskalo nola ordainduko duen. Hala ere, logikoa iruditzen zait Mendebaldearekin harreman estua izateko erabakia hartzea, nahiz



Maria Fon Pushental
artistaren koadroa Friazino
hiriko parke batean.



"Gora Errusiako
heroiak"
dioen kartela,
Moskuko
metroaren
bagoi batean.

eta horrek ez dion laguntzen armagabetezari, noski.

Putinek ultra-eskuinaz dioena sinesgarri jotzen dut, bai; badakit egia dela. Hango jendearekin hitz egin dut, Donbaseko jendearekin, nire familia han bizi zen, eta badakit talde horiek oso oldarkorrek direla. Zibilak eta militarrek bereizi gabe hiltzen dituzte; jendea janaria lapurtzen diote zera esanez: "Guk babes-tu egiten zaituztegu, behar dugun guztia desjabetu egingo dugu". Separatista hitzetik datorren "Separy" esaten diote Donbaseko jendea 2014az geroztik, eta ez dute errespetu askorekin tratatzen. Baina otsailaren 24aren aurretik ez ziren hainbeste. Jakina, "operazio militar berezia" hasteak sustatu egin du talde horiek Ukrainako jende askorentzat erreferente bilakatzea eta haiengana jendea erakartzea, ez ideologiagatik, baizik eta borroka egiteko aukeragatik. Donbaseko jendeak esaten du talde horietako kideak oso ondo armatuta daudela, haien ekipamendua ezin modernoagoa dela eta ez Errusiak, ez Ukrainak ez dutela horren antzeko ezer ekoizten.

Nola uste duzu ikusten dituztela errusiarrek ukrainarrak gaur egun? Iritzi bakarra al dago?

Errusiarrok inoiz ez ditugu gaizki ikusi izan ukrainarrak. Txantxak egiten ziren, noski, baina oso lagunkoiak, gorroto edo herrarik gabeak. Hiru errusiarretik ia batek ditu lagunak edo senideak Ukrainan, edo ukrainar jatorrikoak. Gaur egun, ordea, propaganda bortitzaren ondorioz,

“ ”

Bada jendea oraindik ere pentsatzen duena bi herriok anai-arrebak garela eta noizbait berriz ere lagun izatea lortuko dugula

errealitatea aldatzen ari da. Propaganda gehien sinesten dutenentzat, ukrainarrak etsaiak dira errusiarren aurka ari dire-lako, eta horrek irainak, txantxa ez hain lagunkoiak, gorrotoa eta intolerantzia ekartzen ditu. Eskerrak denek ez dute-la horrela pentsatzen, eta badela jendea oraindik ere pentsatzen duena bi herriok anai-arrebak garela eta noizbait berriz ere lagun izatea lortuko dugula.

Nik ere pentsatzen dut, odol errusiarra eta ukrainarra baititut zainetan. Eta nire lagunak ere pentsatzen dute, jakin baitakite ez dagoela nazionalitate txarrik, nazionalitateak ez duela gizakiaren nortasuna definitzen.

Nola uste duzu amaituko dela gatazka hau?

Ez dakit. Ez dakit jakin nahi dudan ere. Besterik gabe, jendeak hiltzeari uztea nahi dut, soldaduak beren etxeetara onik itzultzea, eta politikariek begiak irekitzea

eta ikus dezatela horrela ezin dela jarraitu. Irakurtzen eta entzuten dudanaren arabera, ez du ematen bakea laster itzuliko denik eremu horretara. Baina itxaropena dut oraindik, ez garela iritsi itzulerarik gabeko puntura. Espero dezagun. ●



mitxelena
NEURRI HANDIKO MEKANIZAZIOA



**EZIAGO POLIGONOA, 21
HERNANI**

**info@talleresmitxelena.com
www.talleresmitxelena.com**

ILARGIA ETA LANDAREAK 2023 AGENDA

Harreman interesatuak dira baratzeakoak

 ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Alegian aurkeztu dute ARGIAren Bizi Baratzea proiektuak kaleratu duen *Ilargia eta landareak 2023* agenda, eta dagoeneko eskuragarri dago argia.eus-eko Azokan. Jakoba Errekondo eta Antton Olariaga egileak izan dira bertan, Iñaki Sanz-Azkue biologoak eta Eñaut eta Unai Agirre bertsolariek lagunduta. Aurkezpen berezia izan da, landareez eta bioaniztasunaz aritu dira hitzez, eskuz eta bertsotan.

Laneko edo etxeko oharrak apuntatzeko betiko agendaren erabilera izateaz gain, ilargiaren gorabeherak azaltzen ditu, eta baita ilargiaren arabera garai zehatz bakoitzean landareekin egin beharreko lanak ere, bai baratzean, basoan, fruitu-arbolatan eta lore baratzean.

Gai bat izaten du ardatz urtero agendak. Animaliak aurtan. Baratzean aurki ditzakegun intsektu, anfibio, narrasti, ugaztun eta hegaztiak. Harreman interesatuak. Horretaz aritu da Iñaki Sanz-Azkue biologoa, bioaniztasunak baratzean duen garrantziaz, eta alderantziz ere bai, baratzeek bizilekua eta bazkalekua eskaintzen baitiete polinizatzaile, hegazti eta abarri. Azaldu du zenbat eta bioaniztasun handiagoa izan, izurriteei aurre egiteko baratze osasuntsuagoa izango dugula; esaterako, txori klase bakoitzak era bateko moko duenez, batzuek intsektu batzuk eta besteek besteak jaten baitituzte.

Jakoba Errekondok elikadura burujabetzaren gaiari heldu dio, agendak hori



Agendaren Alegiako aurkezpenean, ezker-eskuin: Eñaut eta Unai Agirre, Jakoba Errekondo, Antton Olariaga eta Iñaki Sanz-Azkue. Aretoak betekada hartu zuen. ARGAZKIA: MIKEL OLABIDE

ere sustatzen baitu. Adierazi du: "Orri bakoitzean agertzen da garai horretan zer den Euskal Herrian eginda jan dezakeguna, marrazki bidez. Etxera hor agertzen ez den barazki bat ekarri badugu jateko, esan nahi du kilometro asko eginda etorri dela".

Olariagak azaldu du umoretik landu nahi izan duela agenda. Hasteko, sortzailak ondo pasa dezan eta, noski, irakurleak gozatzeko. Animalia bakoitza ingurune batean kokatzea deliberatu du, eta animalia bakoitzaren izaerak eskatzen zuen eszena edo istorioa sortu du, ani-

malia bakoitzari orri osoko "biñeta" edo "piztiarioa" osatuz. Adibidez, enarak eta sorbeltzak azafata lanetan jarri ditu, eta sagarziale amorratua den trikuia, jatetxe batean menua hautatzen.

Unai eta Eñaut Agirre anaiek bertso zaharren bidez borobildu dute emanaldia. Pedro Mari Otañok txepetxari jarritako bertso sortak, horri erantzunez Zubietako (Gipuzkoa) Motza-k jarritakoak eta Iñaki Muruak sagarrondoez jarritakoak aditzeko aukera izan dute bertaratuak. ●




Zibersegurtasunaz formatzen

ARGIAko lantalde barruan hainbat kooperatiba, eragile eta aditurekin egin izan diren formazio saioen baitan, zibersegurtasunaz hitz egitera hurbildu zen Lasarte-Oriako erredakziora Manex Agirre lametza Interaktiboko informatikaria, urriaren 14an.

Modu seguruan nabegatu eta lan egiteko oinarriko arau eta irizpideak eskaini zituen Agirrek. Esate baterako, e-postak jasotzerakoan edo fitxategiak eta aplikazioak deskargatzerakoan kontuan hartu beharrekoak, pasahitzen kudeaketa nola hobetu, segurtasun kopiak egiteko modu egokienak... Hainbat egoera aurreikusteko eskura ditugun tresna eta programen berri ere eman zuen, ordu eta erdiko saio mamitsuan.

Beste Mozart




**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Salzburg (Austria), 1829ko urriaren 29a. M. A. Mozart musikagilea hil zen. Musikazalaren batek pentsa dezake hainbat akats daudela esaldi horretan, Mozart ia 40 urte lehenago hil zelako, Vienan, eta haren inizialak W. A. zirelako. Baina egun hartan 78 urte zituela hil zena Maria Anna Mozart izan zen, Nannerl ezizenez ere deitua, Wolfgang Amadeusen arreba zaharrena. Eta, egia esan, ez dago alde handirik bien haurtzaroen artean. Biak izan ziren hau prodigioak eta aita Leopoldek bien dohainei ahalik eta etekinik handiena atera zien garaiko hiri garrantzitsuenetan erakustaldiak antolatuz. Txikitatik biek ezohiko trebezia izan zuten klabea eta pianoa jotzen, baita konposatzen ere. Maria Anna, gainera, oso ona omen zen kantuan eta, arreba zaharrena izaki, anaiaren irakasle ere izan zen neurri batean.

Garai hartan ondo ikusia zegoen nekato baten talentu musikala ustatzea, ez ordea emakumeena. 1769an Nannerl ezkontzeko adinera iritsi zen, eta aitak alabaren jardun publikoa eten zuen. Hurrengo urtean Wolfgang semea soilik eramango zuen Italiara.

Nannerlek konposatutako lanik ez da gorde. Martin Jarvis ikerlari australiarren ustez, Mozartarrek pianoan praktikatzeko erabiltzen zuten koadernoko konposizio batzuk bereak dira. Baina, frogarik ezean, anaiaren hitzak dira testigantza bakarra. Izan ere, Wolfgang gutunetan, anaiak zioen arrebaren lanak



PIETRO ANTONIO LORENZONI

Mozart anai-arrebak txikitik. Zaharrenaren lanik ez zaigu iritsi; gazteena historiako musikagilerik garrantzitsuenetakotzat daukagu.

oso ederrak zirela eta konposatzen jarrai zezen eskatzen zion.

Maynard Solomon musika ekoizleak idatzi zuenez, "Maria Anna jotzen ikusleak inspiratu zuen Mozart musika ikastera, hiru urte zituela; arreba bezalakoa izan nahi zuen". Gerora, Wolfgangek bere konposizioak bidaliko zizkion zuzendu eta kritikatu zitzen.

Maria Anna Mozarten talentua alferrik galdu izana ezin zaio soilik aitaren apetari egotzi; garai hartako -eta beste garai askotako- aurreiritziek eragin handia izan zuten horretan. Eta horregatik,


zoritxarrez, Mozart anai-arrebena ez da kasu bakarra. Chopin anai-arrebekin, esaterako, antzera gertatu zen; Frédéric Chopinen gutun bati esker dakigu Ludwika arrebak "mazurek perfektua konposatu" zuela.

Eta gurean Xenpelar bertsolariekin ere antzekoa gertatu zen, bikoiztuta gainera. Juan Frantzisko Petriarenaren arreba Maria Luisa eta, bereziki, haren alaba Joxepa Antoni Aranberri ere trebeak ziren bertsotan. Baina arrebaren eta ilobaren dohainak gizonezko Xenpelarren itzaletan geratu dira. ●

Rosetta harria etxera!

Idazkera hieroglifikoa deszifratzea ahalbide zuen Rosetta harria Londresko British Museumen dago 1802az geroztik. Berriki egiptoar arkeologo talde batek harria Egiptora itzultzeko eskaera egin dio museoari, eta dagoeneko milaka sinadura eta atxikimendu jaso ditu. Aswango Arkeologia Fakultate-

ko dekanok Monica Hannaren hitzetan, eskaeraren helburua "egiptoarrei zer kendu dieten azaltzea da. Ziur nago Rosetta harria eta eraman zituzten beste objektu guztiak egunen batean itzuliko dizkigutela, museoan kode etikoa aldatzen ari delako. Kontua noiz gertatuko den jakitea da". ●



BRITISH MUSEUM

JOTAKO ZUHAITZAK ETA ARBOLAK



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

ndarkeriaren erabilera ia egunerokoa da. Fruta arbolak jo eta egurtzeko ohitura oso zabalduta da. XXI. mendean! Fruta arbolak geuk sortutakoak, txertatutakoak eta landatutakoak dira, eta, ustez geure, obedienciazaren dotrina nola hala sartu nahi diegu. Fruta azkar eta oparo eman behar digute.

Jakin badakigu ondo, oso ondo bizi diren arbola askok ez dute la fruta ugari ematen. Zertarako ematen du fruta arbolak? Arbolak ez du fruta ematen guk jateko edo baliatzeko. Frutak hazia darama eta hazi horretatik sortzen den arbolak aurrerantzean bere kastako arbolak ere izan daitezen ahalbideratuko du, bere aberastasun genetikoak etorkizuna izan dezan; bere leinua ez dadila galdu. Tartean gu sartzen gara, eta frutak kendu egiten dizkiogu. Bada, oso ondo bizi diren arbolak hazi eta hazi egingo dira, eta fruta urri emango dute, edo batere ez. Izan ere, hain ondo bizi dira, leinuari ederki eusten diote beraiek, eta etorkizunean fruta eman behar izanez gero, handi eta sendo izango dira. Naturala da. Guk berdin egiten dugu: ondo bizi denak ez du umerik edo bat, gehienez ere bi izango ditu. Gaizki bizi denak ume ugari izango du. Ez dugu oso atzera jo behar gure leinuetan ere joera hori aurkitzeko.

Hortik dator arbolaren aurkako indarkeria. Ezin dugu eraman gu baino hobeto



bizi dela pentsatzen duena. Eta egurtu egin behar. Historian zehar zer ez zaie egin! Altzairuzko puntapaxak sartu, kaitekin edota lokarri sendoeekin gerria estu-estu lotu, azala ebaki eta zauriak ireki, harrikatu, adarrak makilakadaka jo, moildu... Azken beltzean estresa sortzea da. Ondo bizi dena bere onetik atera eta estresak jo dezan nahi da, horrela bere bizimodua zalantzan jarri eta frutagintzara makurtu dadin. Egiptoko zibilizazio zahar hartan, dagoeneko, sikomoro pikondoei (*Ficus sycomorus*) azala ebaki eta zartatzen zieten, fruta ematera sustertzeko. Gaur egun ere maiz erabiltzen da estresatzearen teknika hori. Egarririk edo ongarri gosez edukitzea berriketa gutxiarekin onartutako teknikak dira.

Badira okerragoak baina. Duela oso gutxi arte oso zabalduta zen intxaurrendoi (*Juglans regia*) enborrean eskua lu-

zatu eta harrapatzen zen paretik lurrerainoko lau edo bost ebaki egitea. Gogoan dut Barinagako Adorriaga baserriko Bartolome Egurrolak zein dotore azaldu zizkigun lan horren gorabeherak hitzaldi batean entzule zela: maiztzeko ilbeheran egin behar dira zentimetro erdiko ebakiak, goitik behera zuzen-zuzen. Ondoren enborra asko zabaltzen da. Noski, zauriak nolabait itxi egin behar eta orbaina sortu behar. Horrek loditzen delako itxura ematen du,

eta arbola lur jota uzten du, erreserbarik gabe. Gero ura baldin badu eta ongarriarekin laguntzen bazaio, laster joko du fruta ematera...

Horixe bera da inausketa. Inausketak landarea izorratzea beste helbururik ez du. Izorratu eta urtebia denak urtero fruta eman dezala eta ale gutxiago baina galantak izatea eta abar. Estresatu baina gero lagundu egin behar zaio: zauriak sendatu, ongarri egokia eman eta abar.

Egunen batean, animaliekin gertatzen ari den gisa berean, landareei tratatu hori ematea krimenez joko da. Oraintxe dator inausketa sasoi kriminalena. Zer ikusi behar dugu! Ni jada estresatzen hasia nago. Zu? Estresatuta bizi al zara? Gure jendartearen estresa ogia baino egunerokoagoa da. Fruituren bat eman dezagun nahiko dute. Dirua, merkatua, sortu eta eman. ●

IRAKURLEAK GALDEZKA

Noiz jaso kiwiak ondo kontserbatzeko?
Irañetan, Nafarroan bizi dira.

Izaskun

Bi baldintza kontutan izan. Batetik, ahalik eta beranduen biltzea, fruitua arbolan den artean aberasten ari delako. Bestetik, izotza egin aurretik jasotzea. Izotzaren beldur ez bazara, utzi lasai arbolan bertan. Izotzak datozela jakin arazten dutenean, aurretik bildu. Luze iraun dezaten, ahal baduzu, ilbeheran jaso.

Mizpirak jasotzeko zein egun da onena?

Igor

Mizpira ez da beste fruituak bezelakoa. Sagarrak, adibidez, jaso eta ahalik eta gehien irautea nahi dugu. Mizpira, aldiz, purikatuta, erdi ustelduta, jaten dugu, orduan baita benetan gozoa. Hala ere, irautea nahi baduzu ilbeheran jaso beharko zenuke; purikatzea nahi baduzu, ilgoran.

LIZAGASAR SAGARTOKIXA

SAGARRARI BERE ZUKU OSOA ATERATZEKO PROIEKTU GAZTEA ELGOIBARREN



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Ane Munin Ansola eta Asier Lizarralde Arrillaga gazte elgoibartarrek betidanik izan dute harremana baserri munduarekin, eta lehen sektoreko proiekturen bat martxan jartzea burutan zuten aspalditik. “2019an Gaztenek programara aurkeztu genuen sagartokiaren egitasmoa, eta onartu zigutenean, 2020an, martxan jarri genuen”, gogoratu ditu hastapenak Muninek. Argi zuten biek sagarraren bueltako zerbait abiatu nahi zutela. “Bertako produktua da sagarra, eta lehenagotik, bakoitzak bere aldetik, sagardoa egiten genuen”, dio. Sagardotik harago doan proiektua da abiatu dutena, dena den: sagarrarekin esperimentatzeko proiektua da Lizagasar.

IKUSPEGI HOLISTIKOA OINARRI

Elgoibarko hiru hektarea eta erdiko lur-sailean bertako 15 barietateko 2.100 inguru sagarrondo ditu bikoteak landatuak. “Orokorrean, produktuekin eta lehengaiekin, bertakoa zaindu eta babes-tu behar dugula sinesten dugu, galtzeko arriskua baitago bestela”, azaldu du ekoizle gazteak. Egitasmoa lantzen has-tean argi izan zuten bertatik bertarako ibilbidean mugitu nahi zutela.



Eredu ekologikorako konbertsio fa-sean daude Lizagasar proiektuko sagastiak. Zigilu ekologikoa lortzeko hiru urteko jarraipena egiten ari zaizkie, eta gauzak ongi bidean, datorren urtean jasoko dute. Zigilutik harago, dena den, nekazaritzaren ikuspegi holistikoarekin ari dira lanean bi gazteak. “Biodibertsitatearen zaintza ere kontuan hartzen dugu; adibidez, sagastian zehar txori kabiak jarri ditugu, horiek intsektuak jaten dituztelako”. Sagarrondoak mahastien ohiko forman jarri dituzte, lerroka, belarraren mozketa txandakatuz egiteko: lerro batekoa bai, bestekoa ez. “Zer lortzen dugun horrela? Bada, belarra luze da-

goen tokietan amona mantangorriak egoten dira, eta horiek pulgoia jaten dute, beraz, ez dugu pulgoia tratatu beharrik...”.

SAGARRAREN FORMA ETA TESTURA BERRIAK ZUKUTZEN

Sagarra oinarri duten sei produktu egiten dituzte momentuz Lizagasarreko biltegian: sagardoa, sagar zukua, ozpina, dultzea, marmelada, purea eta sagar zukuarekin egindako madalena eta bizkotxoak. “Gure filosofia da sagarretik ahalik eta produktu gehien ateratzea, eta esperimentazioaren bidez, gauza berritzaileak ere proposatzea”, dio. Madalenen kasuan, Mendaroko Galle-Tiak artisau gozogileekin eskuz esku aritu dira. Eskaintzan produktu horiek dituzte momentuz, baina gauza berriak probatu nahi dituzte; esaterako, Errioxako destilategi batekin sagar pattarra prestatzen ari dira.

Zuzeneko salmenta lehenesten dutela kontatu digute proiektuko kideek: inguruko azoketan, etxez etxeko banaketan eta sagastian bertan saltzen dituzte produktuak. Horrez gain, bisita gidatuak ere egiten dituzte taldeekin. “Hori ere bada gure helburua, lan nola egiten dugun erakustea eta azaltzea”, amaitu du. ●

HITZEN LIHOA - AZAROAK 2-6. OIARTZUN

www.hitzenlihoa.eus

**BEGI
RA
DAK**



Veneziako arte Bienala

inoiz baino kutsu onirikoagoaz

Leonora Carrington (1917-2011) XX. mendeko margolari garrantzitsuenetarikoa bat izateaz gain ipuin kontalari trebea ere bazen. Semeei kontatzen zizkien belarri handi-handiak zituzten eta elefante bilakatzen ziren gizonen istorioak, edo krokodrilok maite eta horiekin batera zingira sakonetan murgiltzen ziren ume ausartenak, eta gorputz erdia karramarro itxurakoa eta beste erdia emakume beltz eder formakoa zuten izakien inguruan ere aritzen zitzairen. Istorio oniriko horiek guztiak, ametsak bezala mugarik gabeko imajinaziotik sortuak, *The Milk of Dreams* (Ametsen esnea) ipuin-bilduman bildu zituen ondoren. Orrialde horietan aurkitu daitekeen fantasiazko mundu amaigabea da aurtengo Veneziako Arte Bienaleko erakusketa nagusian topatu dugun haria.

 JONE ALAITZ URIARTE  LA BIENNALE DI VENEZIA

Cecilia Alemani italiarra izan da aurtengo Bienalaren komisario-tza egiteko enkargua jaso duen komisarioa, eta Veneziako bi gune nagusitan hedatzen den proiektu itzelari izaera, norabidea eta koherentzia eman diona. Egungo egoera ezegonkorren aurrean –gure bizitzako esparru ia guzti-guztietara hedatzen ari den dardara– kosmobisio berriak, imajinatze ezohiko lekuak eta mundua birpentsatzeko aukerak zabaldu ditu artearen praktika heterogeneoaren bitartez. Eta ez da lan erraza, izan ere Venezian bi urtetik behin antolatzen den nazioarteko arte erakusleiho erraldoi hori beti da gehiegizkoa eta menderatzailea, batzuetan operazio efektistetan errazegi erortzeko arriskua daukana. Aurtengoak, ordea, badakar desplazamendu edo toki aldaketa bat: luzez itsuan berresten ari ginen hari ikusezin batekin mozteko desira.

Denbora luzean gailendu den ikuspegi antropozentrista (zuria, gizonezkoa, kolonizatzailea eta patriarkala) agortu dela

ikusarazi, eta Carringtonen fantasiazko munduak bizitzeko gonbidapena da aurtengo bienalean azaleratu dena; eta mundu berriak imajinatzeko gonbidapen horretan, artea tresna ezin baliotsuagoa dela azpimarratu da. Egiteko horri forma emateko, nazioarteko berrehun artista baino gehiagoren lanak aukeratu eta Veneziako Giardini eta Arsenal guneetan aurkeztu dira, eta *Biennale*ko historian lehenengo aldiz –127 urteren ondoren– emakumeak eta genero zehatz batekin identifikatzen ez diren artistak dira gehiengo aurtengoan. Hori ere hasiera bat da.

Beraz, aurtengo Veneziako *The Milk of Dreams* erakusketa nagusian munduaren ikuspegi post-humanista bat gailentzen da, non artistek izaki ezberdinen arteko hibridazioetan erreparatzen duten, mundu naturalaren eta teknologikoaren arteko elkarketan, ezagutza ez-arrazionalen protagonismoa emanez, sinismen eta erritualei lekua eskainiz; azken finean, imajinazioaren uhateak parez pare zabaldua. Horrek guztiak plastikotasun bizi

baten forma hartzen du (Cecilia Vicuña, Paula Rego, Prabhakar Pachpute), eta islatzen da tamaina itzeleko eskulturetan (Gabriel Chaile, Simone Leigh), sabaitik zintzilikatzen diren forma organikoetan (Tere Solar, Kapwani Kiwanga) edota beren baitan ekosistema bat osatzen duten ingurune naturaletan (Precious Okoyomon). Giardiniko eta Arsenalako erakusketa guneetako sarreretako artelanak iruditutako zaizkit paradigmatisikoak: Katharina Fritsch-en *Elephant* (Elefantea, 1987) eta Belkis Ayón artista kubatarraren marrazkiak. Lehenak tamaina handiko elefante baten eskultura, animalia matriarkalaren enblema, ispiluz inguratutako galeria neoklasikoa dotore batean kokatzen du; bigarrena tradizio afro-kubatarretan oinarritzen da alegiazko gizarte matriarkal bat deskribatzeko marrazkien bitartez.

Gorputzaren inguruko hausnarketa ere argi ikus daiteke erakusketa nagusian. Izan ere, gorputz mutanteak eta hibridatuak ikusiko ditugu marraztuta: *cyborg*-ak, protesiak, haragiz hustutako moldeak, silikonazko bustoak, sexu harremanetarako panpina puzgarriak... Gai horren bueltan koka genezake June Crespo artista iruindarraren *Helmets* (Kaskoak) lana. Artista euskaldunak 2020an brontzez egin zuen armadurari batzen dizkio altzairu herdoilgaitzaz eta zeramikaz egindako soin formako bi eskultura. Crespok denbora darama eskulturen bitartez gorputzaren eta arkitekturen inguruko hausnarketa planteatzen, non eraikuntzarako izan zitezkeen materialez egindako eskulturen hutsuneak edo barrunbeak arropaz betetzen dituen. Hiru piezaz osatutako serieak Aneta Grzeszykowska-ren argazkiez inguratuta aurkezten dira.

Erakusketa nagusi horretaz aparte, pabiloi nazionaletan aurkezten diren proiektu artistikoak dira Bienaleko indargunea. Bertan, bi urtetik behin, herrialde bakoitzak bere pabiloian artista baten



edo batzuen lana aurkezten du. Pabiloiak XIX. mende bukaeran eta XX. mende hasieran eraikitako eraikuntza nazionalak dira, zentzu batean XIX. mendean Parisen eta Mendebaldeko beste metropolietan loratu ziren *expo* unibertsalen eta internazionalen zantzia dutenak. Arkitektura bakoitzak eraiki ziren garaiko irakurketa geopolitiko interesgarriak egitea ahalbidetzen du, baina batez ere iraganeko garai bati erantzuten dion eskema baten testiguak dira, eta horregatik, egun zalan-tzan jarri eta birplanteatu beharrekoak.

Konnotazio handiko espazioak dira. Espainiakoa, adibidez, 1922an hasi ziren eraikitzen eta 1954an fatxada barroko originala bistako adreiluzko fatxada bategatik aldatu zioten. 2019ko edizioan Espainiako pabiloian Itziar Okarizen eta Sergio Pregoren lanak aurkeztu ziren Peio Agirrenen komisariotzapean, eta aurten testigua Kataluniara pasa da Ignasi Aballí-ren *Corrección* (Zuzenketa) esku-hartzearekin. Aballí pabiloiaren arkitekturari erreparatu dio, eta garaiko planoak aztertuta, ikusi zuen hormak hamar graduako lerradura zuela Belgika eta Holandarekin konparatu-

ta. Beraz, bere esku-hartzea lerradura hori zuzentzea izan da, pabiloi barrualdean eraiki dituen hormen bitartez. “Desdoituta dago. Zuzenketaren eta errearen ideiarekin jolastea erabaki nuen, eta aldi berean kontzeptu kontrajarriekin lan egitea, hala nola: zuzena eta biratua, edo hutsa eta betea, adibidez”, adierazi zuen artistak. Keinua sotila da, oso *minimala* eta nekez nabaritzen dena, baina hainbat galdera planteatzen dituena: zer inplikatzan du gainontzeko herrialdeekin lerrokatuta egoteak? Zenbateraino da beharrezkoa lerratuta egon behar hori? Aurten ehun urte bete dituen eraikinean bi estruktura batu ditu, non argiak eta hautsak edifizioa okupatzen duten osagaiak diren. Proiektua osatzera datozen sei liburu ere argitaratu ditu, Veneziako hainbat kiosko eta liburu dendetan doan lortu daitezkeenak.

Maria Eichhorn artista alemaniarrek ere arkitektura ardatz hartuta Alemaniako pabiloian esku-hartzea egitea planteatu du. Arestian aipatutakoa keinu sotila bazen, Eichhorn-ena askoz irmoagoa da. Alemaniako pabiloia 1909an eraiki zen Bavariako pabiloia hartzeko. Giza eskala

bati jarraika planteatutako eraikina zen harik eta 30 urte geroago erregimen naziak guztiz eraldatu arte: leihoak estali, sabaia igo, ateak handitu... Ikara eragitera zetorren arkitektura faxista baten adinako pabiloia egin zuten. Artistak espazio horretan bere lana erakutsi baino, nahiago izan du espazioa bera eraldatu, eta 1938ko interbentzio arkitektonikoak desagerrarazi ditu erakusketak iraun bitartean. Operazio horrek, berriz ere, arkitekturaren irakurketa kritikoa egitera behartzen gaitu; edukia bera baino, sarritan espazioan ematen diren baldintzape-nak direlako ezbaian jarri beharrekoak.

Errusiar pabiloia aurten itxita egon da. Ukrainak, ordea, izan du ordezkaria Pavlo Makov artistaren obraren bitartez. Holandak Estoniari utzi dio aurten bere pabiloia, eta Kataluniak izan du bere pabiloi propioa, non Lara Fluxaren proiektua aurkeztu den. Egungo egoera geopolitikoaren lagin bat dirudi Veneziako Arte Bienalak. Dena den, kosmopolisio eta ezagutza berriei bide emateko gonbita da, guztiaren ginetik, gailentzen den esperantzarako zidorra. ●



“ ”

Eguneroko gauzak modu gordinean kantatu nahi ditut

Onintza Enbeita Maguregi

“Bizitzari ez diot eskatzen askoz gehiago”, halaxe agurtu zuen Onintza Enbeitak Elizondo, Bertsolari Txapelketa Nagusiko lehen finalerdian eskainitakoa gutxi bailitzan. Saioaren biharamunean jarri dugu zita bertsolariarekin.

ELI PAGOLA APEZETXEA

Elizondo
urriak 23

**Saioko
puntuaketa**

Alaia Martin Etxebeste
729,5 puntu

Joanes Illarregi Marzol
711 puntu

Agin Laburu Rezola
677 puntu

Unai Agirre Goia
652,5 puntu

Onintza Enbeita Maguregi
639,5 puntu

Iñaki Apalategi Astigarraga
623 puntu

Baztan pilotalekua
1.400 entzule



XENPELAR DOKUMENTAZIO ZENTROA

Publikoarekin zer nolako harremana izan duzu?

Kanturako sekulako plaza zegoen, publiko gurekin zegoen, nabari zen hasierako agurren aurretik eta saioan zehar ikusi zen gutxiarekin erraz pizteko modukoa zegoela. Plaza ederra zegoen, beraz, Elizondon. Horik aurrerakoak norbere sentsaioak dira eta parean tokatu ez izanaren sentzazioa dut.

Pertsona aski publikoa zara, horrek zer eragin du?

Batzuetan deserosoa da jendeak nire berri izatea. Esaterako, jartzen badidate gai bat politikari buruzkoa jendea barrez lehertzen da, edo nire bizitzan defenditu dudana zerbaiten kontra kantatzea egokitu zaidanetan publikoari grazia egiten dio, gai serioa bada ere. Tarteka nire alde baliatu dezaket hori, beste batzuetan kantukideak atera dezakeen gaia da eta beste batzuetan oztopo ere egin izan dit. Hala ere, oro har, jendeak maitasuna eta esker ona transmititu izan dizkit eta hori oso ederra da.

Geroz eta barneratuagoa dugu gorputzetik ere kantatzen dela. Zu oholtzan malgu ikusten zaitugu, ez zara batere zurruna eta, gainera, gorputzari loturiko gaiak landu dituzu bai lehen fasean, bai lehen finalerdian. Zer da bilatzen duzuna?

Batzuetan ezer ez. Hori da nik egiten da-kidana, besterik gabe. Bizitzan gauza asko gertatu zaizkit dudana gorputza izatea-gatik eta horri ezin diot eta ez diot ihes egin nahi. Askok baldintzatu nau, gorputz batekin agertzen gara plazara eta bizipen horiek nire parte dira.

Funtsean, esango nuke, gauza kotidia-noak modu gordinean kontatzen ditudala. Ez naiz metafora artean askorik ibiltzen, zuzenagoa naizelakoan nago eta horrela kantatu nahi dut. Gorputza hor jarri eta errealitate horretatik kantatzea da egin

nahi dudana, jakinik, niretik kantatzea ez dela nire bizitzaz kantatzea.

Esango nuke, nire asmoa dela publikoarekin konektatzea eta denon bizitzetan dauden errealitateak plazara ekartzea, zeren, agian zu umetan ez zeunden lodi, baina, denok ezagutu dugu eskolako bulling-a edo denok dugu inguruan sexu arrazoiengatik harremana utzi duenik.

Hasierako agurrean kantatu zenuen: "begi kliska batean/ ia semifinala/ uste dut azkarregi/ iritsi zaidala". Ze unetan harrapatu zaitu txapelketak?

Despistatuta harrapatu nau. Bi saioak 15 eguneko epean izan ditut, finalerdiei begira jartzeko asti handirik ez dut izan. Hala ere, horrek abantailak ere baditu eta ez dut uste nire puntuazioan eraginik izan duenik.

Nire bizitzaren zentroa beste nonbait dago eta txapelketa iritsi den zerbait besterik ez da. ●

Ganbarakoa

Zer aho zapore utzi dizu biharamunean Txapelketa Nagusia?

Ahozapore ona eta Elizondoren kantatu izanaren poza uzten dizkit. Era berean, distira faltaren pena daramat. Biharamunean, berriz, tenple onarekin nago, lasai geratu naiz.

Saiko bertsoaldi puntuatuena

Joanes Illarregi eta Agin Laburu, foruzainak zarete. Zuen txanda amaitzeko denbora egiten ari zarete, autoa behar ez den lekuan utzita. Beste polizia auto bat hurbiltzen ari zaizue: nagusiarena da.

Puntuka. Doinua: Lurralde dena dabil II

Joanes Illarregi:

*Doble filan jarrita,
kafe bat hartuta*

Agin Laburu:

*turnoa behar baita
hasi eta buka*

Joanes Illarregi:

*lotsarik ez dugula
ezin da izkuta*

Agin Laburu:

*alferrak izatea
ez da gure kulpia.*

Agin Laburu:

*Horrela jaio ginan
mundu honetara*

Joanes Illarregi:

*ta hala joan gara
bertatik bertara*

Agin Laburu:

*polizia ez dena
irakaslea da*

Joanes Illarregi:

*bonbero izateko
alferregi gara*

Joanes Illarregi:

*Kotxearen kapo-an
ipurdia jarri*

Agin Laburu:

*eta kontu politikak
kontatu elkarri*

Joanes Illarregi:

*nagusia heldu da-ta
ipurdia larri*

Agin Laburu:

*baina bera ere ho(rre)la
egoten da sarri.*

Agin Laburu:

*Guk ere baitiogu
hasi ikasia*

Joanes Illarregi:

*soldata ezer egin
gabe irabazia*

Agin Laburu:

*nik ere izan nahi det
nere nagusia*

Joanes Illarregi:

*poliziak herrian
a ze garrantzia!*

Joanes Illarregi:

*Hiru zerbezarekin
heldu da gugana*

Agin Laburu:

*eta tokatu zaigu
kriston panorama*

Joanes Illarregi:

*zer nolako mozkorra
gainean daukana!*

Agin Laburu:

*lasai, nagusia da
ez da zure ama!*

Agin Laburu:

*Harreman ona degu
nagusiarekin*

Joanes Illarregi:

*beti edaten gabiltz
ekin eta ekin*

Agin Laburu:

*eta hor datorrenez
zerbeza horrekin,*

Joanes Illarregi:

*proba egin dezagun
alkohol probarekin!*

Joanes Illarregi:

*Ea zeinek ematen
duen gaur gehiago...*

Agin Laburu:

*apustu kontuetan
ni ohituta nago*

Joanes Illarregi:

*hortan (er)e nagusia
gainetikan dago!*

Agin Laburu:

*harek whiskytik ere
egiten du trago.*

Agin Laburu:

*Beraz, joango gera
danok berehala*

Joanes Illarregi:

*gure kuartelillora
afaltzera hala*

Agin Laburu:

*kuadrilla ona gera
ta beraz, normala.*

Joanes Illarregi:

*Azken tragoa berak
ordaindu dezala!*

BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA 2022

www.bertsozale.eus
www.bertsosarrerak.eus

Antolatzailea: | Laguntzailea:



DONIBANE GARAZI

📅 Urriak 29, larunbata, 17:00
📍 Jai Alai



Aitor
Elvebarriazarraga
Gabiola

Amets
Arzallus
Antia

Asier
Azpiroz
Iztueta

Haritz
Mujika
Lasa

Nerea
Elustondo
Plazaola

Oihana
Iguaran
Barandiaran

FINALAURREKOA



LIBURUA

Adar bat airean



HOTZA BAZKATZEN IZASKUN IGOA JAIMERENA BALEA ZURIA, 2022

MADDI GALDOS ARETA

Nondik idazten eta nondik irakurtzen dugun, edo zerk idazten gaituen eta zer idazten dugun. Poesia, idazketa edo, oro har, hizketa ulertzeko duen erak badu zeresanik joan den maiatzean Izaskun Igoa Jaimerenak (Ziga, 1995) argitaratu zuen *Hotza Bazkatzen* (Balea Zuria, 2022) poema-liburuan. Aurretik literatura munduan ibilia izan arren haxe dugu Zigakoak argitaratutako lehen olerki-bilduma, Donostia Kultura V. Poesia Saria eman diona.


Poema bakoitzak liburua ardazten duten hamar galderetako bati ihardesten dio, erantzun irmo baino, galdera berrien sortzaile izaki: gure joera, kezka eta harremanek, jendartean bizi eta izateko ditugun moduek ez baitiete beti lege matematikoei erantzuten. Eseri eta

frenesia geldotzeko parada dira hala poemok: ezinegona abiapuntu, egoten ikasteko abagune; barrutik kanpora begiratzeko aukera, edo alderantziz. “Haizerik zakarrenak / harrotutako adarra ere, / arbolaren mugen artean / mugitzen da. / Airearenetan, puskatu”. Hausten den nitasun bat dugu lerrootan, minari, kaosari eta pentsamenduari itsasten zaiona, baina itaun konplexuak galdegindako konplexutasunez tratatu eta puskaka bere osotasuna azpimarratzen duena.

Haizea airea da mugimenduan, aire gabeziak dakarren gehiegikeria da arnasestua, barneratzen dena arnasa eta kanporatzen dena hatsa. Igoak frogatzen duen lege, ordea, aireak adieraz dezake hori baino askoz gehiago: bilakatzen da fereka, presa edo egone-


zin. Gorputzean, denboran eta naturan topa ditzakegun elementuak ere badarabiltza ni poetikoak maiz bere buruari zuzendu eta irakurleari jarrera errelexiboa izan dezan gonbita egiteko. Horrela, besteak beste, bizimodu modernoak eskaintzen digun balizko askatasunaren eta lotura bakoitzat jotzen den amodioaren disezio zorrotza egiten du, hizkera argi eta sarkorra baliatuta.

“Ezin da hitz bera izan / nik idatzi / eta zuk irakurri duzuna. / Bio grafia”: akaso irakurteak idaztearen uste baino antza handiagoa duelako. Igoak berak irakurri dituen hainbat idazleri egindako aitortzek osatzen dute bilduma, elkarriketa horretan irakurleari bere esanahi propioak eraiki ditzan aukera eskainita. ●



MUSIKA

Gustuko lautadan nekerik ez



LAUTADA MICE

FORBIDDEN COLOURS, 2020

XALBA RAMIREZ

Hemen, errebelazio bat bezala, espazioa eta denbora argiago ikusten dira". Miren Narbaiza bueltan da berriz, eta eskerrak. Eszenak eman duen kantugilerik berezienetako bat da Narbaiza. Kanta berriak nola gobernatzen dituen ikustea besterik ez dago.

Zeren, sortzaile gehienoi gertatzen zaigu behin egindakoaren itzala dela egindakoa. Hobetuz edo okertuz, baina egindakoaren itzal. Narbaiza, Napoka Iria proiektu ederretik aldendu ostean, disko berezi –eta eder– batekin agertu zen: *Mice*.

Bada, bide bera errepikatu behar izanik gabe, ildo berean, baina zeharo disko ezberdina da *Lautada*. 2019an kaleratu zuen *Zilar printzak* hura ere gaindituz, eta urre kolorez jantziz konponketak.

Japonian, apurtutako zeramika po-toak urre hautsarekin konpontzen dira,

kintsugi teknikaren bitartez. Urrez janzte honek badu hortik, hilabete luzeetako isiltasunetik bueltan da Narbaiza, inoiz baino kantu landuagoekin. Izan ere, disko honen produkzioa da disko hau bera. Kanta onak izan behar horretarako, noski, baina norabide zeharo ezberdinetan doaz denak, rockaren undergroundean, eta, denak aldi berean, helmuga berera.

Aurpegira Begiratu kantan saxofoi eta haizeek egiten dituzten riff beroek iruditeria aberasten dute, adibidez, baina ildo sobera markatu gabe. Zuzenekoan ez daude haize horiek, eta berdintzatzen du kantak. Zerk egiten du orduan kanta? Joseba Baleztena eta Ibaia Gogortza izan ditu Narbaizak ezkutari, eta soinuaren lanketa, bi bider bide bera ez egitearen filosofia ageri da.

Inor begira izanda ere abestian sormen prozesu batean dagoen eपाia ageri

dela esango nuke. Orokorrago irakur daiteke, noski. Baina esango nuke disko honetan musikari izatea, eta emakume musikari izateak dakartzan zalantza, traba eta zailtasunak sartzen direla letra gehienetan.

Mirenen letragintza halakoxea delako; printza batek argitzen du testua, baina ez duzu topatuko aldarrikapen zuzenagirik. *Lautada* kanta aldatzen da gehien. Maitasunari ere abestu behar zaio noizean behin, ze arraio.

Narbaiza itzuli da, eta gitarrarik gabe eskuan, erregina bihurtu da oholtza gainean. Gutxitan ikus dezakegu norbait horrela dantzaren. Naturaltasuna beste nonbaitetik dator eta. Sormena infinitua da gure garunaren barruan, eta hori esploratzen jarraitzen dutenek argitzen digute norabidea. "Garun honetan lekurik ez du mintzairak / Zoru honetan lekurik ez mintzaira zaharrak". ●



Kalapitaren bila

 IÑIGO BASAGUREN-DUARTE

KALAPITA FEST II

NOIZ: urriak 9

NON: Txorierri

Zubiak bi munduren arteko muga markatzen du. Alde batean Bilbora doan errepidea dugu. Bestean ezer ez, inon ez. Zubia mundu ezagunaren eta gune liminalaren arteko aduana da. Azpitik zeharkatu dugu beste dimentsio batera eraman behar gaituen porlanezko atari bat izango balitz bezala, beste aldean sortu behar den zalapartaren bila. Han, eraikitzen bukatu ez zuten txalet auzo erraldoi eta aberats baten hondakinetan, inoiz gauzatu ez den etorkizun baten mamuen artean antolatu dute II. Kalapita Fest-a.

Txorierriko gune abandonatu hone tan, porlan eta sastraken arteko bideari jarraituz, banan-banan aurkitu ditugu antolatu dituzten sei emankizunak. Tunel baten barruan izan da lehenengo. Bertan, Alex Mendizabal kanabera bati lotutako zakar poltsa batzuen barruan jarritako bi bozgorailuek jaurtitzen zizutuzten loop-en soinuarekin jolasean ibili da, poltsak airean alde batera eta bestera

dantzaz jarriz. Mugimenduak, tunelaren oihartzunak eta tartekako seinale galerek emaitza ederra sortu dute.

Eguzkipean eta isiltasunean abiatu gara hurrengo topagunera. Bidean haur batek gidatutako motor txiki batekin gurutzatu gara, agian hona etorri behar ziren auzokideetako baten mamua izango zen. Porlan arrakalatuaren bazter batean, belar txarren artean Izarne Oyarzabalek, Mikel Vegak eta Fernando Ulzisionek osatutako hirukotearekin egin dugu topo. Azken bien inprobisazio musikalaria erantzun die lehenengoaren dantzak, urruntasunean hegazkinen aireratze eta lurre-ratzea gertatzen zen bitartean. Tarteka dantzariak belar txarrei tira egin die, heriozko paisaia esnatu nahiko balu bezala.

Hirugarren emanaldiaz gozatzeko urbanizazioaren ur biltegia izan behar zenaren barruan sartu gara, non Ibon RGk eta Luis Andrek han bertan grabatu duten diskoa aurkeztu duten. Hor ibili dira porlanari orroka, tronpetaren haize


enbatekin kolpatuz. Bi izaki dira elkarri hitz egiten saiatzen. Urtegia bera hirugarren musikari bat izan da, bere barneko edozein soinu, marmar xume bat zein lurrrari emandako ostikada sendo bat, beste dimentsio batera eraman baitu.

Larrean botata bazkaldu ostean azken gunera abiatu gara, beste tunel batera. Hiru emankizun antolatu dituzte bertan. Abrigo bikoteak sortutako tran-tze egoeratik irten garenean, Lorea Oar-Artetak soinuarekin esperimentatzen jarri gaitu, zurrumurrutik oihura pasatuz. Handik isiltasunera. Bukatzeko, Don the tigger-en (Adrian de Alfonso) emanaldia izan dugu. Han, inora ez daraman tunel baten muturrean, bere ahots ederraren proposamenak paisaia malenkoniatsu eta ilunetatik eraman gaitu.

Egunaren azken eguzki izpiekin bat irten gara gune ahaztu horretatik. Hesi bat gurutzatu eta zibilizazioan gara ber-riz, inon ez egun ederra eman ondoren. Muga zeharkatzeak merezi izan du. ●



Gurutzegrama



EZKER-ESKUIN:

1. Eutsi, jasan. / Eskaini. **2.** Iloba (Bizkaian). / Haragia. **3.** Hizketan. **4.** Ihurtzuria, tximista (Zuberoan). **5.** Egiazki, seguruenik. / Egokia ez dena. **6.** Mugatutako denbora-bitartea. / Bultzatzaera behartu. **7.** Argazkiko herria. / Eireko biztanle. **8.** Ez handi ez txiki. / Gune sakon.

GOITIK BEHERA:

1. Biloa. / Lixiba ura (Zuberoan). **2.** Bakoitzaren jokamolde. / Faisaiaren familiako hegazti. **3.** Esaneko. **4.** Zakuaren edukia. **5.** Gaixo. / Adia, auhena. **6.** Bururatu. / Arabiar izenetan, seme-alaba. **7.** Ohitua. **8.** Ehunaren edo oihalaren ertz. **9.** Galde partikula. / Zazpi eguneko epea. **10.** Nauka. / Salbu. **11.** Iratze. **12.** Erloju, ordulari. **13.** Etxeko animalia. **14.** Ukan. **15.** Trikitian, adore emateko.

Sudokua

ERRAZA



5	6	2		9		8	7	
	3	1	7		5		9	
9	8	7		6			5	
		6	2		9	5		7
		9				3	6	4
7	5				4	1		9
6	1	5				9		2
2	7				1	6		
	9		3		6	7		

ZAILA

9			5					
			1				6	
4	6	1					5	9
2	1	7						
	4					2	3	
		9			1			7
	7						2	
	9			2	6		8	
8	5		7					

Esaera zaharra

KOKA EZAZU PUZZLEAREN PIEZA BAKOITZA BERE TOKIAN ETA ESAERA ZAHAR BAT AGERTUKO ZAIZU.



Anagramak

HITZ BAKOITZAK AURREKOAK DITUEN HIZKI BERAK DITU, BAT IZAN EZIK, BAINA BESTELAKO HURRENKERAN.

Buruko ileen multzo

Aisia

Ebaki sakona

Oinetakoa

Ebakia, zauria

Bonu, txartel

Aldaki

Lekua

Material beltz

Zereala

Beldurtu, ikaratu

Gorantz zuzen

Nekatu

ADATS

AKITU

EBAZPENAK

TXAPEL BEHARRIK EZ.
BURURIK EZ DUENAK
ATOSIZITZA

8	5	2	7	3	8	3	1	6
1	9	3	4	2	2	7	7	8
6	7	4	8	1	5	6	3	2
3	8	8	6	2	5	1	6	4
5	4	6	9	8	7	2	3	1
2	1	7	6	4	3	5	9	8
4	6	1	3	7	2	2	8	5
7	2	5	1	9	8	3	6	4
9	3	8	5	6	4	1	7	2

ZAILA

8	9	4	3	2	6	7	1	5
2	7	3	9	5	1	6	4	8
6	1	5	8	4	7	9	3	2
7	5	8	6	3	4	1	2	9
1	2	9	5	7	8	3	6	4
3	4	6	2	1	9	5	8	7
9	8	7	1	6	2	4	5	3
4	3	1	7	8	5	2	9	6
5	6	2	4	9	3	8	7	1

ERRAZA

ESKER-ESKUIN: 1. IROZO, EMAN, 2. LOBA, OKELA, 3. ELEKETAN, 4. DURUNDA, 5. EIKI, DESEGOKIA, 6. EPEA, BULTZARAZI, 7. HENDAI, EIRETAR, 8. ERTAIN, SAKONUNE.
GOITIK BEHERA: 1. ILEA, EHE, 2. ROL, EPER, 3. ORBEDI, 4. ZAKUKADA, 5. ERI, AI, 6. OTU, BIN, 7. EKANDUA, 8. MENDEL, 9. AL, ASTEA, 10. NAU, EZIK, 11. GARO, 12. OREN, 13. KATU, 14. IZAN, 15. AIRE.

Pili Castro

BAKARDADEAREN AZTERLARIA



BAKARDADEA ARRAKASTAREN GIZARTEAN

“Bakarrik sentitzen garela ukatzeko joera dugu. Arrakastaren gizartean bizi gara, eta arazoak ezkutatu ohi ditugu. Bereziki, buru osasunekoak. Eder, gazte eta arrakastatsu izan beharra dago. Hobe litzateke bakardadea oinazetzat hartuko bagenu, baina, horren ordez, arrakasta-porrot aldagaien arabera interpretatzen dugu. Eta bakardadea porrota dela uste dugunez, ukatu egiten dugu. Laguntza eskatzea kostatzen zaigu. Egin beharko genukeen lehen gauzetako bat da bakardadeari estigma kentzea, errutik deslotzea. Estigma sekulako kaltea egiten ari baita. Zaila da jendea bakardadearen aurkako proiektuetara erakartzea”.

“Bakardadea gure gizartearen epidemia bat da, ez adinekoena soilik”

Psikologian doktorea da Pili Castro Blanco (Basauri, 1968), eta arlo horretan irakasle dihardu, Deustuko Unibertsitatean. Era berean, adinekoen eta zahartzearen sailaz arduratzen da Bizkaiko Caritas erakundean. 2016an adinekoen bakardade sentimenduari buruzko doktore-tesia aurkeztu zuen, eta gai horixe izan dugu hizpide.

UNAI BREA HODEI TORRES

Definitu bakardadea, mesedez. Posible baldin bada.

Uf. Gure gizartean, “bakardade” hitza aipatzen denean, eta batez ere adinekoekin lotuta, berehala etortzen zaizkigu burura bakarrik bizi diren adinekoak. Maiz ohitura dugu bakardadea neurtzeko harreman-kopuru handiagoa edo txikiagoa izatearen arabera; kanpotik ikus daitekeen oso gauza objektibo baten arabera. Baina nik, eta beste askok, beste ikuspuntu batekin lantzen dugu bakardadea: norberak duen sentsaziotzat hartuta. Izan ere, batzuetan bakarrik gaude eta hala ere ondo sentitzen gara, eta beste batzuetan, berriz, bakarrik sentitzen gara itxuraz lagunduta gaudela ere, inguruan jendea edukita ere. Bakardade sentimenduak ez du zerikusia soilik nire harreman kopuruarekin, neure harremanekiko dudaren sentipenarekin ere badu.

Ez da ikuspegiarik zabalduena, oro har.

Ez, lagunartean, egunero, ez dugu

horretaz hitz egiten, baina nork bere bakardadeaz hitz egiten duenean hori aipatu ohi du. Tesia egin nuenean, adineko jendearen bakardadea ebaluatu eta ulertu nahi nuen. Adineko pertsona batek bakardadeaz hitz egiten duenean, zertaz ari da? Eta kontatu zizkidaten gauzetatik hiru ondorio ateratu nituen. Batetik, alargun geratu izanaz hitz egiten dutela, lagunak hil izanaz, bakarrik bizitzeaz... Hau da, bakardade objektiboaz, izandako harremanak galtzeaz. Beste batzuek esan zidaten bakardadea dela sentitzea ez duzula norengana jo: “Orain, bakarrik bizi arren, ondo nago, baina zerbait gertatuz gero ez dut izango zainduko nauden inor”. Hirugarren bakardade mota ere aipatu zidaten, eta oso garrantzitsua iruditzen zait, adinekoek gagozkielarik: sentitzea jendeak ulertzen ez zaituela, balio berdinak ez dituzula...

Horri bakardade sintonikoa deitu zenion?

Izen hori eman nion irratia gogoan

"Pribatutasuna irabazi dugu,
baina komunitatearen
zentzua galdu dugu".



nuela: antzinako irratiek gupil moduko bat izaten zuten, sintonizatzeko; leku egokian ipini ezean, ezin irratirik entzun, zarata besterik ez. Eta zarata isiltasuna baino gogaikarriagoa zen. Garrantzitsua da hori; adinekoen bakardadeaz hitz egiten dugunean, sarri, ez dugu harremanen kalitatea kontuan izaten, eta uste dugu haiei begira egotea (badaezpada jausten diren), edo laguntza zerbitzuak edukitzea, edo beste pertsona batzuk ondoan izatea nahikoa dela bakardaderik senti ez dezaten.

Badago bakardadea objektiboki neurtzerik? Gerta daiteke psikologo batek bakarrik sentitzen den norbaiti esatea: "Barkatu, baina ez daukazu arrazoi objektiborik bakarrik zaudela esateko"?

Ez, sentsazio bat da-eta. Baliteke, egoera berdinean egonda ere, zu oso zoriontsu sentitzea eta ni, aldiz, oso bakarrik. Ez dago objektiboki esaterik zenbat harreman behar dituen pertsona batek. Psikologian, bakardadeari dagokionez, asko lantzen da espektatiben gaia. Esate baterako, adin oso handikoen belaunaldi-

dian betidanik ikusi dute belaunaldi gazteagoak belaunaldi zaharrena zaintzen zuela. Eta beren kasuan ere hala izango zelako espektatibarekin bizi izan dira. Gaur egun, ordea, hori ez da betetzen, beste modu batean bizi garelako, belaunaldi gazteak etxetik kanpo lan egiteko hezi gaituztelako... Eta dezepzioa dute.

Oso zabaldua dago bakardadea? Adinekoen dagokionez, "epidemia" hitza ere ikusi dut nonbait.

Gure gizartearen epidemia bat dela uste dut, ez adinekoena soilik. Gure bizimoduak, askotan, harreman sakonak zailtzen ditu. Denok gaude ohituta besteekin elkartzera, hitz egitera... baina horrek ez du berez esan nahi konfiantzazko harremanak ditugunik. Esango nuke osasun publikoko arazo bat sortzeko arriskuan gaudela.

Askotariko osasun arazoekin lotzen da bakardadea.

Aspalditik egin dira oso ikerketa serioak, lotzen dutenak bakardadea luzaroan jasatea sistema immunologikoa ahultzearekin. Minbizi sendaezinen kasuan,

bakardade sentimenduak gaitzaren bilakaera azkartu dezakeela adierazten dute beste azterlan batzuek. Eta adinekoengan narriadura kognitiboa azkartu dezake. Besteak beste.

Zer egin dezakegu?

Ni asko kezkatzen nau gure gizartearen dagoen bizitzeko erak. Orain dela urte batzuk, askoz gehiago bizi ginen komunitatean, auzokoen arteko harremanak askoz estuagoak ziren, elkarri laguntzea naturalagoa zen. Bestalde, ezin zen ezer egin denek jakin gabe. Pribatutasuna irabazi dugu, baina komunitatearen zentzua galdu dugu. Orain, nekazaritzaren alorrean zero kilometroaren garrantzia aldarrikatzen den bezala, hurbiltasuna berreskuratu behar dugu harremanetan. Eta ekoizpen eredua ere moldatu behar genuke. Nola da posible harremanetarako astirik ez edukitzea, lanak menpean gauzkalako? Herrialde garatuenetan bakardade indizerik altuenak daude: bizimodu inbertsonalagoa, merkataritza gune handiak eta dendarik gabeko hiriak... Ohar gaitezen horretaz, eta gorde ditzagun lehengoak zituen gauza onak. ●

Migrazioaz aberiaturtutako trasteekin

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Jose Mari Esparzak idatzitako artikuluren bat parean tokatzen zaidanean ez dut irakurri gabe uzten. Defendatu izan dituen ideiekin ados egon ala ez, Tafallako idazle eta editoreak pentsarazi izan dit eta ezagutzen ez nituen pasarte historikoen berri eman. Arrazoiak ugari, haiek plazaratzeko estiloa ere bai. Topikosferatik kanpo pentsatzen duela uste dut, debate sakonak ireki izan dituela –beste askoren artean, Euskal Herria imajinatzeko dauzkagun moduez: gutxik esplikatu dute berak bezain ondo *Ager Vasconum*-etik gauzak ez direla Kantauri aldetik bezala ikusten–.

Aurreko guztia diot, ez daukadala-ko gogorik Esparza seinalatzeko, are gutxiago xextra antzuetan denbora galtzeko. *Diario de Noticias*-en berriki argitaratu duen “¿Migración? No, gracias” (Migrazioa? Ez, eskerrik asko) irakurritan, ordea, irudipena daukat aberiatutako traste dezente erabiliz idatzi duela.

Gaian sartzeko aipatzen duen “zuzentasun politikoa”-ren problema, adibidez. Azken urteetan nonahi agertzen da. Migrantez edo LGTBIQ+ kolektiboko jendeaz segun eta zer esan aurretik, “ez naiz politikoki zuzena izango, baina...” edo tankerako esaldiek erraz zirkulatzaren dute, baina gutxik bilatu dute espresioaren jatorria. Moira Weigel filosofoak bai: *The Guardian*-en idatzizuen artikulua bat irakurtzeak aski izan behar luke formula horrekin kargatuta datorren edozein tramankuluri eszeptizismo handiz begiratzeko –bila ezazue, merezi du: “*Political correctness: how the right invented a phantom enemy*” (Zuzentasun politikoa: nola asmatu zuen eskuinak etsai fantasma bat)–.

Artikuluko beste parte batzuek optika distorsionatu samarra dute. Esparzak dioenez, aberatsenak “beren



baliabide mediatikoekin moralina merkea injektatzen digute eta katekesi bat, itxuraz humanista dena, progre guztiek migrazio masiboari txalo egin diezaio- gun mana berria balitz bezala”. Justu kontrakoa gertatzen dela pentsatzeko ez duzu urrutiegi joan behar, paraje hauetan gehien kontsumitzen diren medioetan edozein delitugileren jatorri atzeritarra nola nabarmentzen duten begiratzea aski duzu; edo Melillako hesia pasa duten pertsonen aritzean “*asalto*” (oldarraldi) bezalako hitzak zer lasai erabiltzen dituzten. Hedabide horiek migrazioa modu *kunbaia* samarrean ospatzera baino, gehiago dedikatzen dira “mehatxu” gisa aurkeztera.

Esparzak defendatzen duen ideia nagusia ere ekibalentzia faltsu baten bidez eraikia dago: “Errefuxiatuen eta migranteen eskubideen defentsa erradikalak bat egin behar du migrazioa geldiarazteko borrokarekin, langabeei edo gaixoei emandako laguntzek langabeziaren eta gaixotasunaren aurka-ko borrokarekin bat egin behar duten

modu berean”. Brotxa lodi samarra erabiliz bakarrik ulertzen da migranteak, langabeak eta gaixoak kategoria elkartrukagarriak direla, auzi sozialen makinatik pieza bat kendu, baliokidea den beste bat jarri eta berdin funtzionatzen jarraitu ahalko balu bezala. Gauzak, zer egingo zaio, konplexuagoak dira, eta konplexutasun horretan aztertzen ez badira hanka sartzeko aukera handiak daude.

Nolanahi ere, gehien kezkatzen nauena artikuluari darion beldurra da: migranteak populazioaren gehiengoa bihurtzeko beldurra. Esparzaren ustez ezkerrek argudio propioak behar ditu hori posible egingo lukeen fenomenoaren kontra, bestela eskuin muturrak bereganatuko duelako eztabaida. Agian George Lakoffen elefantearen kontu hura pixka bat errepasatzeko garaia da, konturatzeko problema kalderete pozoitu honen errezeta bera dela, eztabaidaren markoa nork ezarri duen alegia. Eta hori nekez konponduko dela Nafarroako piper gorri batzuk erantsita. ●

2023 Ilargia eta landareak

URTEKO LANEN AGENDA

Baratzea • Fruitu baratzea • Lore baratzea • Basoa

Jakoba Errekondo eta Antton Olariaga

Noiz eta zer lan egin landareekin?

- Agenda honetan dauzkagu ilargiaren arabera urte guztiko lanak.

Egunerokoa ilargiarekin eta lurrarekin uztartu

Landareekin egiten ditugun lanak jaso eta ikasteaz gain, agendan idatziko ditugu bakoitzak gure bizitzako hitzorduak, gogoan hartu beharrekoak eta gainerakoak.

 **ARGIA**
BIZI BARATZEA

14€

+ 4€

bidalketa
gastuak

Neurria: 165 x 225 mm
220 orrialde
Espirala darama

Eskuratzeko:

argia.eus/azoka
(+34) 943 37 15 45





Non naturalak
jogurtak bakarrik diren

Bertsolari
Txapelketa
Nagusiko
saioen liseriketa
kolektiboa,
gaingabetu gabe



Bideo-podkast berria,
Urriaren 25etik aurrera
entzun eta ikusi ARGIAN

Jarraitu



Laguntzailea

Goenaga
YOGUR